



euskara



XII. urtea
140 - 141. zk.
2004ko uda

Gasteiz EUSkalduna

bidaiak

franco itundua 48/27



HAR EZAZU EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

ARABA OSOKO EUSKARA HUTSEZKO
HILABETEKARI BAKARRA.
ZAINDU DEZAGUN, BADA!

18 EURO

URTE OSOAN

945 222 153

geugaste@grn.es

**JAI
ZORIONTSUAK**

IZAN ZAITEZ

GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!



Dalvez
argitarazleak
www.dalvez.com

muntaiadiseinuamaketazioa

liburuak
katalogoak
aldizkariak
afixak

Diaz de Olano kalea, 22 behea
(San Martin auzoa) • Gasteiz
Tel. 652 77 65 09
Fax: 945 24 52 69
e-mail: info@dalvez.com
www.dalvez.com

- X 4. sarrera / araba bixotzian
- X 5. iritzia: jazzaldia. gorka glz. de zarate
- X 6. iritzia: águila patruila
- X 7. kaleak dio: águila patruila

x euskara

- X 9. hizkuntza bat. kirmen uribe
- X 10. euskara ikasleak: lorea hidalgo
- X 11. gasteiz & euskaldunak: jon mentxaka
- X 12. herria eta hizkuntza (xalbador – mikel laboa)
- X 13. euskara ikasleak: isabel buesa
- X 14. gasteiz & euskaldunak: oskar basurto
- X 15. mugalaria. edu zelaieta
baga-biga-higa. herri olerkia – mikel laboa
- X 16. euskara ikasleak: pilar fdz. de garaialde
- X 17. gasteiz & euskaldunak: aintzane larretxi
- X 18. amaren hizkuntza samurtasuna da. pako aristi
herri proiektua. joseba sarrionandia
- X 19. euskara ikasleak: marta anuncibay
- X 20. gasteiz & euskaldunak: izaskun vitoria
- X 21. filologiakoa. luigi anselmi / artze
- X 22. gasteiz & euskaldunak: ixone marin

- X 23. escribo en una lengua extraña.
bernardo atxaga
- X 24-25. trilogia
- X 26. artze

x bidaiak

- X 27. lisboa
- X 28. orbaitzeta. lopidana
- X 29. zimbawe
- X 30. sallent de gállego. bardeak bizikletaz
- X 31. landak
- X 32. portugal
- X 33. istanbul
- X 34. asilah. luarca
- X 35. ekuador
- X 36. kuba
- X 37. kuba
- X 38. senegal. interrail
- X 39. chicago

x gehigarria: jai-egitaraua

x beste:

- X 40-41. garbiñe uriarte. jaietako kartelaren egilea
- X 43. agenda
- X 44. zutabea & errezeta
- X 45. Geurekin Mendira: gazte taldea martxan
- X 46. komikia

Azala ...



euskara atala. elkarmizketak: edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue. olerkien sailkatze lana: edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, saioa fdz. de arangiz, maite lekue eta estitxu breñas glz. de zarate. bidaiak: edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, saioa fdz. de arangiz, maite lekue, estitxu breñas glz. de zarate eta edorta sanz



GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es


Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune veleiz de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak: josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue
Argazkiak: edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak: edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan: gasteiz desmilitarizatua plataforma, gorka glz. de zarate, jon zubiaur, erlantz urtasun eta diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak: maite lekue
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako Kulturako Saila



ARABAKO EGUNKARIKO LANGILEEI, ITXIERA DELA-ETA, ZORTERIK ONENA OPA DIEGU. Geu aldizkari taldea

Minutu bateko manifestua

Bernardo Atxaga. Nueva Etiopía. 1996

Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum, Lingua Vasca
 Limba Vasca, Llengua Vasca, Lengua Vasca
 Langue Basque, Basque Language, Baskische Sprache,
 Baskische Täl, Baskitski Jazyk, Baskisk Sprog,
 Jezik Baskiski, Bask Sprok, Baski Ezin
 Bask Nielv, Vaskii Jazik, Basko Simi
 Ibaskiki Glosa, Baskin Kielei, Baski keele
 Baski Geld, Urrulimi Baski, Uzuelulu Vasco,
 Nkobe Vasco, Ludimi Bask, Baskeren Lezou
 Aluga Baskia, Basuku Go, Pachike Yü,
 Bask Ki Ke, Leilali Bask, Euskera,
 Üskara, Euskerie, Euskara:
 Gure hizkuntza da.

araba bixotzian

ion zubiaur



"PATRULLA ÁGUILA" ...CELE...BOOM!!!!

Oharra: azken berrien arabera irailera atzeratuko da erakustaldia

Gasteiz, 2004ko abuztuak 4. Andre Maria Zuriaren plaza arratsaldeko 18.00etan inurritz gainezka. San Migelen kanpaiak, zerutik datorren Zeledon agurtzeko prest. Inurriak zerura begira. Baina... ez da Zeledon! Ez dira superheroien blusakoadrila! Ez dira txoriak! Águila Patruila???... Cele... Boomm!

1. Zer deritzozu Gasteizko jaietarako Udalak programatu Águila Patruilaren erakustaldiari?

2. Zergatik uste duzu hartu duela Udalak halako erabakia?

3. Zure aburuz, egokia al da jaiak eta indar armatuak bateratzea?

Francisco Valiente, ikaslea eta langilea



1) Ez zait ez ondo ez txarto iruditzen, betiere, zerbait polita eta atsegina egiten badute. Ni kanpokoa naiz eta nire ustez, hemen ejerzitoa ez dago ondo ikusita. Beharbada, jendeari bestelako ekintzak gustatzen zaizkio. Nik uste badaudela "Águila Patruila" baino ekintza politagoak.

2) Ez dakit. Gubernuan dagoen alderdia kontuan hartuz, gauza asko pentsa daitezke. Ejerzitoaren inposatzeko joera ikusirik, ejerzitoaren kultura hori hemen ezartzea izan daiteke arrazoi bat.

3) Indar armatu hoiek beteko duten paperaren arabera. Nire aburuz, afera honetan kultura funtsezkoa da. Hau da, ni Albacetekoa naiz eta han ejerzitoa zerbait normala da, "Águila Patruilaren" erakustaldia ez da arraroa eta nolabait ohituta gaude. Hemen, berriz, ejerzitoa ez da hain ondo ikusten eta jendeak pentsa dezake ejerzitoa bere jaietan muturra sartzen ari dela, erakunde hori ez dagoelako hemengo kulturari lotuta.

Nestor Callejo, langilea eta ikaslea



1) Oso txarto. Ez da hemengo tradizioa edo ekintza, ez da euskalduna. Nire aburuz, izorratzeko egiten dute.

2) Faxista batzuk direlako. Euskaldunak gara eta ez dut ulertzen zergatik egin behar duten halako erakustaldia.

3) Ez dauka zerikusirik. Ekintza hori programatu dute euren ideologia agerian uzteko eta hemen daudela erakusteko, besterik ez. Ez da hemengo kultura, inposaketa bat baizik!

Ana Lopez, langabea



1) Oso gaizki. Ni ez nago ejerzitoaren alde eta gainera nire ustez, arriskutsua izan daiteke.

2) Auskalo! Ez dakit. Normalean ez dituzte halako ekintzak antolatzen, ez dakit zergatik egingo duten aurtan.

3) Egia esan, ez zait egokia iruditzen.

Irantzu Ibañez



1) Ez diot zentzu handirik ikusten militarren inguruko halako ekintza bat egiteari, ez du zerikusirik Gasteizko jaiekin. Nire ustez, gasteiztar gehienok horren kontra gaude.

2) Ez dakit, dagoen Udalarekin auskalo! Edozein gauza izan daiteke!

3) Ez, batere, ez du zerikusirik. Zentzugabea da jai batzuetan halako erakustaldia programatzea.

Nerea Fdz. de Larrinoa, argazkilaria



1) Gaizki iruditzen zait. Gudaren inguruan egon den polemika kontuan hartuz, nire ustez sasiak sutzea da. Gainera, jende gehiena bat ez datorrela esango nuke. Alkatearen jarrera nahiko harroputza izan da.

2) PPK agerian utzi du behin eta berriz zein den bere ideologia, hau da, nahiko faxista dela; orduan hori kontuan hartuz, nahiko logikoa iruditzen zait hartu duen erabakia.

3) Ez. Nik uste dut ez duela zerikusirik Gasteizko jaiekin. Gainera, probokazio bat iruditzen zait.

Gurutze Sagasti, langilea



1) Jaien testuingurutik kanpo dagoela iruditzen zait, ni antimilitarista naiz-eta.

2) Beraiek nolabait arreta deitu nahi dute, uste dute haxe dela hiritarrei gustatzen zaien estiloa. Nire aburuz, militarren kontra dagoen edonor ekintza horren aurka ere egongo da.

3) Ez, batere ez. Halako erakustaldi batean aurrekontuaren dirua xahutu beharrean, hobe litzateke Gasteizko edo Arabako taldeen kontzertuak bultzatzea, hasi berri diren musikariei laguntzeko alternatiba kulturalak suspertuz.

JAZZALDIA AMAITU DA. GORA JAZZA

Gorka Gonzalez de Zarate



Urtero bezala uztailean Jazzaldiak bisitatu gaitu gasteiztarrok, eta hori dela-eta behean sinatzen duena urteroko alamenaren ematera datorkizue berriro.

Badakit. Batzuek zera esango duzue, pasa dugun -edo jasan behar izan dugun- gertaera honen inguruan: Biba!, dagoeneko bukatu egin da. Bazen garaia. Beste batzuek, berriz, harridura adieraziko duzue: A, baina jarraitzen al du, bada, Jazzaldiak? Beste batzuek, aldiz, atsegin dugun musikaren ausentzia nabaritutako dugu urtean zehar.

Izan ere, guztiok, neurri batean zein bestean, ohitu baikara urteroko ikuskizun garrantzitsuenetarikoa honetara. Gertaera bezala, Prudentzio deunaren jaiak edota Andre Maria Zuriarenak bezalako ekitaldi bihurtzen ari da urtez urte. Urtero etortzen ohi diren musikariak etor daitezkeen hoberenetarikoa dira, dudarik gabe. Adibidez, aurrean bere azken lana aurkezteko berriro taularatu den Paco de Lucia mitikoa izan dugu. Wayne Shorter eta Herbie Hancock etorri dira puntako talde batean. Oso aro sortzaile batean dauden Chano Dominguez eta Brandford Marsalis ere etorri dira. Tamalez, Bobby McFerrin bere betiko xaramalak egitera etorri da, baina era berean gau horretan Hiromi gaztearen lan ederra ikusi ahal izan genuen.

Gero eta itxura instituzionalizatuagoa hartzen ari den Jazzaldi honek baditu, oster, bere zirrikituak; bere alde urratzaileak.

Mendizorrotzan egin diren ekitaldiak ordena baten barruan garatu dira eta ezusteak neurri txikiak izan dira. Esaterako, gustatu zitzaizkidan Solomon Burke abeslariak antolatzaileei zein segurtasun kideei egindako nolabaiteko iseka, ikusleak bere albora taularatu, antolakuntzaren neurri zorrotzak lasaitu zituenean.

Baina izan da Mendizorrotzatik kanpo beste lekurik, non sormena eta gozamen askeagoa garatu den, musikarien eta ikusleen onerako. Horietako bat Principal antzokia izan da. Hor XXI. Mendeko Jazza delako ekintza burutzen da eta hor jendea musika entzutera baino ez da hurbiltzen. Halaber, halako beste lekuak, kontzertuak hartzen dituzten hotel eta tabernak dira. Aiara Kantzillerra Hotelean Hiromi izeneko piano-jotzaile gaztearen musika indartsuarekin liluratuta geratzeko aukera izan genuen. Han ere Mendizorrotzan hain piura serioaz aritzen diren musikarien notak dastatu ahal izan genituen berriro, egunsentira arte luzatu ziren *Jam Session* zoroetan.

Hala ere, ez da dena bukatu. Hemen badugu Jazzalditik Jazzaldian jarduteko gonbidapena inoiz jaso ez duten musikari euskaldunen lana dastatzeko aukera. Horretan arituko gara datorren urtera arte.



"PATRULLA ÁGUILA"ri EZEZKO BOROBILA

GASTEIZ DESMILITARIZATUA plataforma

1990eko Maiatzean, Gasteizko gizarteak ekitaldi, adierazpen eta mobilizazio ugarietan plazaratutako sentipenari jarraiki, Gasteizko Udaleko Osoko Bilkurak mozio bat onartu zuen kontrako bozik gabe, honen bidez *"gizarte desmilitarizatu, tolerante, demokratiko eta bidezkoa, egiazko etsai dituenen kontra egingo duena -pobrezia, langabezia, drogak, kulturgabetasuna, ea.- eta arma gastuak irakaskuntza eta heziketa profesionalerako, osasunerako eta ingurugirorako, ikerkuntzarako eta herrialde txirotuekiko kooperaziorako inbertsio bihurtuko dituen"*-ren alde eginaz. Bilkura hartan bertan, gainontzeko mozio bat ere onetsi zuten, ildo beretik *"udalerri esparruan edonolako ekitaldi edo parada militarrek saihesteko"* eskea egiten zuena.

Moziook, kontzientzia antimilitaristaren inguruko kontsensu irmoaren isla izateaz gain, ondorengo urteetan gerren aurkako mobilizazio anitzen bulkada jaso izan dute; azken urteetan ordea, gutxiespena eta urradura jasan dute egungo Alkatearen eta bere gobernu taldearen partetik.

Hortaz, ahozabalik utzi gaituzte Alonso jaunak gure udalerrian urtero jasaten ditugun maniobra militarrei eginiko laudoriozko adierazpen errepikatuek. Aurretiazko kontsesuzko dinamika apurtu eta muzin egin dio, bai geure hiriko ordezkari goren gisa ospakizun eta parada kastrenseetara joz, zein izaera zibileko ekintza ofizialek autoritate eta ordezkari militarrek gonbidatuz. Gizarte laguntzak murrizten zituen ahala udaleko aurrekontuz udal instalazioetan eginiko aktibitate militarrek subentzionatu eta pribilegiatu ditu... eta orain berriz, hiritargoaren sentipenarekiko mesprezuaren erakustaldi honetan, Defentsa Ministerioarekin

erakustaldi aeronautikoa kontratatatu du, armaden eta industria militarren proselitismo sotila eginaz ("Patrulla Águila"ren helburu ofizialeko bi borobiltzen ziren horrela) festa patronaletan ere militarren presentzia bermatzeko.

Ez da gehiegikeria, "Patrulla Águila"ko *akrobata inozenteak* Aireko Armadako ofizialak dira, eta erakustaldietan ez daudenean C-101 kaza hegazkinen (erakustaldian erabiltzen diren hegazkin berberak) pilotu izango direnak trebatzea da haien egitekoa, erasorako izaera duten aireontzi hauek gudatan erabil ditzaten.

Gure pazientziak gainezka egin du, eta aurre egiteko eta Ezezko borobila emateko ordua iritsia dela uste dugu. Abuztuaren 4rako aurreikusitako erakustaldi militarren kontra gaudela esateko, eta bereziki, Alkateari eta bere gobernu taldeari Gasteizek ahalegin saiatzuz lortutako gizarte desmilitarizatuaren aldeko apustuari kale egin ez diezaioten exijitzen diogula aldarrikatzeko.

Honengatik guztiagatik, Gasteizko hiritargoari dei egiten diogu, Alkateak "Patrulla Águila"ren erakustaldiak bere horretan jarraitzeko asmoarekin jarraituz gero, desmilitarizazio sozialaren aldeko bere apustua berriz ere erakuts dezan antolatuko diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartuz, hartara GASTEIZ DESMILITARIZATUAN bizitzeko dugun desira kolektiboa berrituz.



MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
 Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDAÑO	ERDIALDEA	LAKUA	ZARAMAGA
Enrique Eguren, 5-7 Tfnoa. 945242852 945220715 (jantokia)	Santa Barbara pza. z/g Tfnoa. 945203312 945280997 (jantokia)	Biltzar Nagusien k, 54 Tfnoa. 945175651 945176406 (jantokia)	Gasteiz kalea, 18 Tfnoa. 945288068

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

sartu
 Zure arropa eta oinetakoa!
 www.sartudenda.com
 Kubillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

DIBUtec
 Paper Berezioak
 Arte Ederretarako Materiala
 Ink Jet original eta birziklatuak
 Bulego Materiala
 Enluzdemazioak
 Plastifikazioak
 Kopioak
 Kompletu Estampaketak

azkarprint
 Inprimatze / Inprimatze
 Edozein inprimoketara
 mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

TXUKUNA
 EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
 bainu-batak, oihalak,
 sukaldeko zapiak,
 patchwork ohe-estalkiak...
 Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo
ERAMAN ETA JAN
 "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
 GASTEIZ

ERROTA
 HORTZ KLINIKA



Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
 Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
 e-mail: errotadental@euskalnet.net

eguzkitarako nobedade guztiak Mendia Optikan, ... zatoz ikustera



ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MENDIAOPTIKA
 DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

HIZKUNTZA BAT

Kirmen Uribe (2004ko urteberri egunean)

Hizkuntza batek ez daki
onaren eta txarraren berri.
Hori gizakion kontua da.
Hizkuntza bat itzalaren antzekoa da.
Ukabila altxatuz gero
hark ere altxatu egingo du.
Ihesi bazoaz, hark ere
zure atzetik egingo du ihes.

Hizkuntza batek ez daki
egiaren ala gezurraren berri.
Hori gizakion kontua da.
Hizkuntza batek ez du hormarik eraikitzen,
kolorez pintatzen ditu.
Hizkuntza batek ez du inor hiltzen,
batu egiten gaitu.

Baina hori bai, hizkuntza bat,
hizkuntza bat hil egiten da.

bertako euskara ikasleak

LOREA HIDALGO




2 3 urte ditu Loreak eta bere jaioterri Logroñon askotan galde izan diote bere izenaren eratorriaz. Gustuko du azalpen hau ematea ordea, bere bizimoduaren berri ematen laguntzen baitio.

Errioxa eta Bizkaia artean egiten du bere bizitza neska honek; Magisteritza ikasketak Logroñon amaitu zituen eta lanean hasi zen orain dela 5 urte Otxandioko igerilekuan, sorosle. Euskaldun giroan murgildurik bizi dela dio, bai Errioxako fakultatean egindako lagunen ondorioz zein Bizkaian duen familia eta koadrilaren eraginez.

Euskal Herrian bizitzea du ametsetako bat, horretarako euskara ikastea beharrezko izango duela argudiatuz. Gogotsu da euskara ikasten hasteko; oinarria bere kasa ikasia du, ahalegin pertsonal eta jende euskaldunaren laguntzaz behinik behin. Urrea baino gehiago baloratzen duen denbora falta da orain arte aurkitutako traba nagusia.

Euskaraz mintzatzen saiatzea gustuko du jendeak pazientzia eta animoak erakusten dizkionean gehienbat. Bere lana eta kokapenagatik euskara du gertuko hizkuntza eta jendartearen nahikoa mintzatzen dela uste du. Egoera hau biziki maite du Errioxako lore honek.

maite lekue



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945.14 41 95 GASTEIZ

gasteiz & euskaldunak

JON MENTXAKA


Oñatin ikusi zuen mundua lehen aldiz 23 urteko gazte gasteiztar honek. Jada bere bizia martxan jarri du Jonek, iaz Injinerutza teknikoko ikasketak Gasteizen amaitu eta dagoeneko beka baten laguntzaz lanean ari da enpresa batean. Bere burua euskalduntzat du ile kizkurdun honek, eta ahal duen guztietan euskaraz mintzatzen da bere ezagun eta lagun gehienekin. Gaztelaraz ikastolan ikasi zuela dio paradoxikoki, baina hala ere, bere eskola heziketak bizia euskaraz moldatzen lagundu diola uste du.

Unibertsitatean ere euskaraz egiteko parada izan zuen Jonek, bere espezialitatea euskaraz egiterik baitzegoen eta kanpusaren eraginez Gasteizen euskaldun kutsu handiagoa nabaria dela dio. Lanean ere ahal duenekin eta ahal duen moduan euskaraz mintzatzen saiatzen da beti eta euskaraz ikasten daudenak bere ama-hizkuntzan berba egiten animatzen ditu.

Jonek lan munduan erdaldun esparrua nagusi dela aitortzen du eta honek bere adierazpenak mugatzen dituela dio, gaizki-ulertuak eta hizkera arrunta baimenduz.

Euskal kulturazale, euskara maitale eta suspertzaile izaera du Jonek, euskaldunon ondarea eta berezitasuna delako eta oso harro eta gustura sentitzen da euskalki desberdinetan mintzatzeko aukera suertatzen zaion bakoitzean.

maite lekue



edorta sanz

“Herria eta Hizkuntza”

Hitzak: Xalbador /Musika: Mikel Laboa

Iragan egun batez, ostatu batean
bi lagun ari ziren ez ta ba betean;
biak ziren euskaldun zintzoak ustean,
halaere ezin adi elgarren artean;
entzuten egona naiz omore tristean.

Ez dut osorik hartu baten parabola,
erderaz mintzo baitzen, berak jakin nola:
gure herri maiteaz zuela axola,
hau, bere gain beharra, bertzen men dagola,
“Gora euskal-herria”, frantsesez ziola.

Bertzea oldartu zen euskera garbian:
“Gure hizkuntza ez da galduko agian!
Hori dugu berexik guk Euskal-herrian,
Gainerakotan gaude bertzen negurrian;
frantses eginak gira joan den aspaldian!”

(...)

Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa;
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.

Batzu herriaz orroit, euskeraz ahantzi
bertzek euskera maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bestea gabe ez daizkela bizi.



a.f.

bertako euskara ikasleak

ISABEL BUESA

edorta sanz



Olabide ikastolan ikasi arren, Isabel Buesa gazteak IKA euskaltegiko 10. urratsa ikasten dihardu gaur egun. “Txikitatik ikasi nuen euskara galtzea pena bat da. Beharbada, gaztea zarenean ez zara konturatzen euskararen garrantziaz, benetan behar duzunera arte”, dio neskak. 26 urteko kazetari gasteiztar honentzat euskara jakitea funtsezkoa da, ez bakarrik lanerako, baita eguneroko bizitzarako ere. Horregatik, eta euskara berreskuratu nahian, izena eman zuen euskaltegian. “Badakit euskara nire lanean oso erabilgarria egingo zaidala, hala ere, ni euskara ikasteko apuntatu naiz”, diosku Isabelek.

Ildo horretan, oso gaizki ikusten du edozein lanetarako tituluduna izatearen beharra; bere ustetan, inposatze horren ondorioz asko euskara errefusatzera heldu baitira. “Ezarpen horrek ez dio mesederik egiten hizkuntzari”, azaldu du.

“Egia esan, nik ez dut askotan euskaraz egiten, baina erabiltzen dudanean oso gustura sentitzen naiz nire buruarekin. Badakit hanka-sartzeak egiten ditudala, hala eta guztiz ere, niretzat garrantzitsuagoa da egiten dudana ahalegina”, gaineratu du Isak. Arrazoi horregatik, edonor animatzen du gure hizkuntza ikastera, ez behar bat izango balitz bezala, baizik eta atsegin eta gustuko duen zerbait izango bailitzan.



saioa fdz. de arangiz

gasteiz & euskaldunak

OSKAR BASURTO

3 7 urteko gasteiztar euskalduna dugu Oskar Basurto. Delineazio proiektuak egiten ditu enpresa batean, zenbait makineriaren diseinuak eginez. Izan ere, berak delineazio ikasketak egin zituen. Irakurtzea, zinema ikustea eta mendira joatea ditu gustuko. Orain, uda garaian, gasteiztar askok bezalatsu, urtegira joatea atsegin du.

Duela hamar urte ekin zion Oskarrek euskara ikasteari. AEKn izena emanez egin zuen euskararen mundura murgiltzeko jauzia. Bertan bi urte egon zen jarraian, gero utzi egin zion, eta orain dela lau bat urte berriro heldu zion euskara ikasteari, eta zortzigarren urratsera arte heldu zen. Bi barnetegitan ere egon zen, eta esperientzia hori euskaraz hitz egiteko izan ohi den "lotsa kentzeko" baliagarria izan zitzaiola dio. Edonola ere, euskara kalean ikasi du gehien Oskarrek, jendearekin hitz egiten.

Euskara ikasteari "egoera politikoak" bultzatuta ekin ziola diosku. Egun, ez du euskara nahi adina praktikutzen ingurukoekin, eta aitortzen du Gasteizen oro har ez dela samurra euskaraz bizitzea. Hala ere, euskaraz ikastearen garrantzia nabarmentzen du: "Oso hizkuntza ederra da, aberatsa". Gainera Euskal Herria eraikitzeke ezinbesteko tresna dela uste du: "Euskal Herria egin behar badugu, euskaraz egin behar dugu. Oso sentsazio polita da euskaraz jakinda Euskal Herritik mugitu eta komunikatu zaitezkeela ikustea", dio.

edurne begiristain

Mugalaria

Edu Zelaieta, Mugaldekoak. 2004ko apirila

Mugalaria izan nahi nuke
 lege arrotzei lasai muzin egiteko.
 Lege arrotzei lasai muzin egin eta
 bertako mugak hautsi
 Bertako mugak hautsi eta
 libreago bizi
 Libreago bizi eta
 Harat-honatean ibili
 Harat-honatean ibili eta
 kontrabandoan zoriona pasa
 Kontrabandoan zoriona pasa eta
 mugalaria izan
 Bertako mugei muzin egiteko
 Izan nahi nuke mugalaria



estitxu breñas

Baga-biga-higa

Herri olerkia. Musika: Mikel Laboa

Baga, biga, higa
 Laga, boga, sega.
 Zai, zoi, bele
 harma, tiro, pun!

Xirristi-mirristi
 gerrena plat,
 Olio-zopa,
 Kikili salda,
 Urrup edan edo klik...
 Ikimilikiliklik...

bertako euskara ikasleak

PILAR FERNANDEZ DE GARAIALDE



Pilar erizaina da, baita hiru neskatoren ama ere. Animatuta hasi zen duela sei urte euskara ikasten eta amatasun kontuarengatik utzi behar izan bazuen ere, datorren ikasturtean ikasketak berreskuratzea du asmo. “Iaz izan nuen alaba eta gainera garai horretan lanean hasi nintzen, dena batera etorri zitzaidan. Horregatik orain lasaiago nagoela bueltatzea erabaki dut”, dio Pilarrek. Kuriositatez apuntatu zen emakume hau bere alabak zihoazen ikastetxeak gurasoentzako eskaini ohi zituen euskara klaseetara, eta bertan hiru ikastaro egin zituen. “Alabek euskaraz ikasten zuten eta nik euren azterketak eta ikasketa metodologia hobeto ulertzeko apuntatu nintzen hizkuntzaren hastapen klase horietara -dio-. Ondoren

Udalak gizarte etxeetan dituen ikastaroetan matrikulatu nintzen eta han ibili naiz iaz arte”. Laugarren urratseko maila dauka gaur egun Pilarrek, baina aurrera jarraitzeko asmoa du datorren ikasturtean. “Irailean berriro hasteko gogoia daukat, izan ere euskara gustatzen zait. Hizkuntzak duen logika eta esaldiak egiteko modua, deklinabidea... etab. atsegin ditut”, azpimarratzen du adibide piloa aipatzen dituen bitartean.

Aurten klaseetara joan ez den arren telebistaren laguntzaz belarria egiten saiatu da, baita GEU aldizkariaren bitartez irakurmena lantzen ere. “Batuaz egiten dutenean gero eta gehiago ulertzen dut, baina euskaldun zaharrei ulertzea oso zaila iruditzen zait, -barre egiten du-. Dena den, urte hauetan nik euskararekin izan dudana garapena ikusi dut eta horrek motibatzen zaitu. Pentsatzen dut apurka-apurka euskalduntzea posiblea dela. Gainera nik lan eginez eta alaba txiki batekin neurri batean lortu badut gainontzekoek ere egin dezakete. Gogoia izanez gero egingarria da, gauza da ez desanimatzea eta kostata bada ere aurrera egitea”.

josune v. de mendizabal



gasteiz & euskaldunak

AINTZANE LARRETXI



edorta sanz

26 urte ditu Aintzanek eta Magisteritza ikasketak burutzen dihardu hainbat lan eta egitasmo artean, besteak beste. Euskara Gasteizko Ikasbidea ikastolan ikasi zuen; Batxilergoa, aldiz, gazteleraz burutu behar izan zuen eta urte hauetan euskaraz aritzeko jariora eta freskotasuna galdu zuen.

Euskaltegi desberdinetan hasi zitzaion euskarari atzera ere martxa hartzen eta unibertsitate kideekin berba egiteak eta lagun batek euskararen lekukoa pasatu izanak, bere bizitza euskaraz moldatzeko grina piztea lortu zuten Aintzaneren baitan.

Euskaraz mintzatzeak beste bizimodu bat dakarrela uste du; gauzak ikusteko eta pentsatzeko era desberdin bat. Euskal Herriko hizkuntza ezagutzeak, praktikatzek, zaintzek eta sortzen duen giroan murgiltzek sentrazio positiboak sorrarazten ditu beregan eta egoera hau oso maite du Aintzanek. Euskal literatura, euskal musika eta euskarazko komunikabideak kontsumitzen ditu bere egunerokotasunean.

Gizartean euskaraz mintzatzeko beharra sorraraztea funtsezkoa dela uste du, gune publikoetatik hasiz lehenik eta behin. Kontzientzia falta eta ahalegin politiko ahulak ikusten ditu arazoaren muina.

Gasteizen euskaraz aritzeko dauden zailtasunek, oster, ezinegona sortzen diote berari, hizkuntzarekiko lotura sendotuz eta traben aurrean indarra emanez.

maite lekue



Amaren hizkuntza samurtasuna da

Pako Aristi, XX. mendeko poesia kaierak

Labana zaurituak dira
euskararen hitzak,
hegal ustez zorrotzak eta
kamuts deklaratuak
atari berriko mugetan.

Zertarako tximeletari
mitxilotea deitu,
txitxidola, mitxirrika,
txitxipapa edo txilipitaina,
haurrei pinpilinpaua
aski zaienean...

Nork sinestuko du
amaren musuak
samurtasunaren hizkuntzan
elebakar direnik?

Nork izendatuko ditu
egun euritsua eten eta
ilunabar aratza prestatu duen
eguzkiaren erasanak lurrian?

Nor mintzatuko zaie piztiei
kitarrarik gabe, hitz hutsez?
Mendeak hizkuntzaren antzeko hotsez

larrua maitatzen, eta
euskararen hitzak tartailo daude
oraindik

odoluts den maiteminduaren mingainean.

Zergatik ez ditugu

Zuberoako hitzak ahoskatzen
gure mintzairan?

Gure haurrek hitz egingo al dute
penarik gabe,

hizkuntza derrotxatu beldurrik gabe,

beti geroaren ikara garaiturik,

esango ote dituzte

lur bustiaren gainean bilutsik

gelditzerainoko ausardiaren hitzak?



Herri proiekttoa

Joseba Sarrionandia, Ene ondasun guztia

Arrotz jaio ginen geure herrian,
aditzik gabeko mintzairaz hazi ginen.

Honezkero ordua da euskal herria
bilatzeko,

hemen bertan edo haraindian, eta bere
zubipe lozorrotik esnatzeko.

Euskal herria defendatuko dugu
uholdeen kontra

Lehortearen kontra eta adur
eskasiaren kontra.

Euskal herria alfabetatuko dugu
gramatika sortzaile

eta aldatzaileekin, eta ariketa
pornografikoekin.

Euskal herria gainpopulatuko dugu
Malthusen kontra

Euskaldunez, koreanoz, swahili beltzez
eta eskandinabiar blondez.

Euskal herria laudatuko dugu
finezia idiotakin

eta gogorrezia argiekin eder,
penagarri

eta geurea delako. Eta finean,
euskal herria,


San Agustinenak eta faltsua/egia
frogak pasa ondoren,

bene benetako herria dadinean
asmaketa ahaztuko dugu.

Estatu tekniko bat utzi eta ikurriñak

Sukaldeko trapu bihurtuko ditugu,

euskal herriak izatearenekin batera
ez izatearen abantailak izan ditzan.



bertako euskara ikasleak

MARTA ANUNCIBAY



“Euskara gustuko dut, hemengo hizkuntza baita. Nire ustez, denok euskara ikasi eta jakin beharko genuke”, dio Martak, HABE euskaltegiko 9. urratsa ikasten ari den gasteiztarra. 24 urteko Irakaskuntza Bereziko teknikari honek badaki euskara jakiteak lanean atea irekitzen dizkiola; “euskara menperatuko banu, gehiago gustatzen zaizkidan lanpostuetarako sarbidea izango nuke”, aitortzen du.

Bere aburuz, oso zaila da euskara ondo ikastea, hala eta guztiz ere, “merezi du”, dio Martak. Horregatik, euskaltegian makina bat urte egoteaz gain, gazteak Lazkaoko barnetegian 6 hilabete eman zituen. Euskara ondo ikasteko modu bakarra dela deritzo, euskaltegian ez bezala, etengabe euskaraz jarduten duzulako, ikaskideekin zein herriko jendearekin. “Esperientzia oso polita eta gomendagarria da”, azaltzen du.

Nolanahi ere, euskara ikasteko erraztasun gehiago falta direla uste du Martak. “Dirulaguntza gehiago egon beharko lirateke, ez bakarrik irakasle eta funtzionariantzat, baita pertsona ororentzat ere”, gaineratu du.

saioa fdz. de arangiz





gasteiz & euskaldunak

IZASKUN VITORIA



Institutuan txalaparta ikastaro batera apuntatu eta gehienak euskaldunak zirela ikustean konturatu zen Izaskun euskara ikasi nahi zuela. “Ulertu, ulertzen nuen, baina ezin nintzen gainontzekoekin komunikatu eta orduan euskaltegira apuntatu nintzen”, dio 28 urteko gazteak. Izaskun seigarren mailan hasi zen eta guztira bost urte eman zituen, euskalduntze prozesu osoa menperatu artean, alegia. Hitz egiteko pausoa ordea, urtebete beranduago eman zuen. “7. urratsean nengoela lagun talde euskaldun bat ezagutu nuen eta euskaraz egiten zutenez nik ere ausartzea erabaki nuen, -dio-. Gainera pozgarria da ikasten zoazen neurrian hitz egiteko eta komunikatzeko gai zarela ikusten duzunean”.

Egun Izaskunek, hainbat lagunekin euskaraz mintzatzeaz gain, lanean, umetxoekin, lankideekin, begiraleekin... euskaraz mintzatzea posible dela azpimarratzen du. (Bere lantokian, Aldabe

gizarte etxeko Elkartze gelan, elkarriketatzen ari natzaiola hegoamerikar hizkera duen umetxo batek partxiseko fitxak bueltatzen dizkio, “toma Izaskun” esanez; euskaraz ari garela entzutean, aldiz, “eskerrik asko” esan eta irribarre egiten du).

Izaskunen aburuz, batzuetan memento eta tokiaren araberak euskaraz egitea zaila da, baina sarritan ere lotsa kentzeak eta ausarta izateak ere aurrera egiteko zerikusi handia dauka. “Beti dago norbait gehiago edo gutxiago baina euskaraz egiten duena”, dio.

josune v. de mendizabal

Filologiakoa

Luigi Anselmi

Mintzaira eta emakumeekin
orobat zait gertatzen
denak atsegin ditut
guzi-guziak maite,
- Zein duzu nahiago galdetzen didate,
emaztea ala ama?
Aukeran zein hautatu?
Ba al du erantzun zuzenik
galdera bihurri horrek?
Amak ezinbestez emanak zaizkigu,
emazteak, ordea,
geuk hautatuak omen dira.
Baina, jakina denez,
hizkuntza aferetan
inkestua dago modan,
norbere amarekin ezkontzea, alegia.
Erotismoaren kondairan, haatik,
beti izan da harreman
ezohikorik.



J.A. Artze

Lurralde zehatz bat baino,
zerupe jakin bat baino
are areago,
euskara da
euskaldunen herria.

Euskara non entzuten,
eta han bait du, ez beste inon,
euskaldunak herria,
han du Euskal Herria.

Hala ere, ahodunak jateko
lurralde bat behar eta,
hiztunak hitzegiteko
zerupe bat behar eta,
euskaraz bizi daitekeeno,
euskaldunak hau du bere lurra,
hau, bere zerupea,
oraingoz...



gasteiz & euskaldunak

IXONE MARIN

Ixone eta euskararen arteko lotura betikoa izan da. Ikasketa guztiak euskaraz egin zituen, baita Donostian ikasitako “Enpresa-zuzendaritza” karrera ere. Gurasoak ez dira euskaldunak, alabaina, familia Legazpikoa da eta haiekin beti euskaraz hitz egin du Ixonek, euskararekiko harremana inoiz galdu gabe. Egun, Aretxabaletako Arizmendi ikastola kooperatiba elkarteko pertsonalgo sailean dago lanean, bertan euskara erabiltzea ezinbestekoa duelarik.

Araba eta Gipuzkoa artean bizi denez, lurralde bakoitzean euskarak bizi duen egoera ondo asko ezagutzen du: “Zeharo desberdina da egoera. Gipuzkoan, esaterako, euskaraz hitz egiteko aukera zabalagoa da; Udaletxean, tabernetan, dendetan... edonon euskara lehen hizkuntza dugu. Araban, berriz, gaztelera da harremanetarako lehen hizkuntza eta euskaraz bakarrik leku konkretuetan egin daiteke. Beraz, nahiko zaila da Gasteizen euskaraz bizitzea”, azaltzen du gazteak.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren eginbeharra funtsezkoa dela uste du Ixonek. “Jaurlaritza Gasteizko egoeraz arduratu beharko litzateke, bertan euskara bultzatzeko egiten duen esfortzua eskasa delako. Adibidez, Haur Hezkuntzan ikasleak erakartzeko kanpainetan enfasi gehiago jarri beharko luke, jendeari euskara ikasteak dakartzan abantailak eta onurak azalduz; ez bakarrik aspalditik dugun hizkuntza eta kultura bizirik mantentzeko, baizik eta gure haurrek etorkizunean izango dituzten beharrei aurre egiteko ere”, uste du Ixonek.



saioa fdz. de arangiz

Escribo en una lengua extraña

Bernardo Atxaga, Nueva Etiopía-1996

Escribo en una lengua extraña. Sus verbos, la estructura de sus oraciones de relativo, las palabras con que designa las cosas antiguas -los ríos, las plantas, los pájaros- no tienen hermanas en ningún otro lugar de la Tierra.

Casa se dice *etxe*; abeja *erle*; muerte *heriotz*. El sol de los largos inviernos, *eguzki* o *eki*; el sol de las suaves y lluviosas primaveras, también *eguzki* o *eki*, como es natural. Es una lengua extraña, pero no tanto.

Nacida, dicen, en la época de los megalitos sobrevivió, lengua terca, retirándose, ocultándose como un erizo en este lugar que ahora, gracias precisamente a ella, muchos llamamos País Vasco o *Euskal Herria*. Sin embargo, su aislamiento no fue absoluto: gato es *katu*; pipa es *pipa*; lógica es *logika*. Como concluiría el príncipe de los detectives, el erizo, querido Watson, salió de su madriguera y visitó muchos lugares, y sobre todo Roma.

Lengua de una nación diminuta, lengua de un país que no se ve en el mapa, nunca pisó los jardines de la Corte ni el mármol de los edificios de gobierno; no produjo, en cuatro siglos, más de un centenar de libros: el primero en 1545; el más importante en 1643; el Nuevo Testamento, calvinista, en 1571; La Biblia completa, católica, allá por 1860. El sueño fue largo, la biblioteca breve; Pero en el siglo veinte, el erizo despertó.



lehenaldia

Eskola Eraztuna.
1803 urtea

"(...) para prueba del delito, corre un anillo de mano en mano entre los que han tenido la fragilidad de haber hablado un solo vocablo bascongado (...) y después de una severa reprensión por haber hablado en su idioma patrio, y no en el extraño, (...), tómale las manos, y golpea sus palmas, y se retira el infeliz chiquillo sin atreverse a derramar una sola lágrima para que no le doblen la pena (...). Pero si quiere seguir el Maestro el rigor judicial, le azota como a un esclavo, imaginando que la castellana letra 'con la sangre entra'. (...)".

Juan Antonio Moguelen testua (1803),
Arabako Euskal Hotsak liburua-2002

Delitua

Eraztuna

AUSARDIA

Bidegabekeria ---- odola = biziraupena

Argi-errainua

Eutsi, ez etsi

Inposaketa



oraina

Idatz nitzake bertsorik
tristeenak gau honetan

Idatz nezake, esaterako. "Gaua dago izarra,
Eta dar-dar dira, urdin, ortze-argiak, urrun".

Gaueko haizea jira-biraka dabil zeruan eta kantari.

Idatz nitzake bertsorik tristeenak gau honetan.
Nik maite nuen, eta batzuetan ere maite ninduen.

Gau honen oso antzekoetan beso artean izan nuen.
Hainbestearino mun eman nion muga gabeko zerupear.

Maite ninduen, eta nik hura batzuetan.
Nola utzi maitatu gabe haren begi handi geldiak.

Idatz nitzake bertsorik tristeenak gau honetan.
Gogoan hartu ez dudala nirekin. Senti galdu egin dudala. /
Nirekin dudala, nirea egin dezakedala, eta zaindu behar
dudala.

Gau izugarriari entzunez egotea, izugarriagoa oraindik bera
gabe.



Josune v. de mendizabal

Eta arimarengana erortzen da bertsoa ihintza belardira bezala.

Eta zer nire maitasunak ere ez bazuen hura eusterik izan.
/ Nire maitasunak eta erabilerak eusterik badu, zeren zain egon? Nola bazterrean utzi? Nola hiltzen utzi? /
Gaua dago izarrez beterik eta bera ez da nirekin.

Hori da dena. Norbait dabil kantuan urrun. Urruti hartan.
Ez da ene arima lasaitzen hura eta gero ere.

Ene begirada bila dabilkio bere gertutasunari eutsi nahian.
Ene bihotza bila dabilkio, eta bera ez da nirekin.

Gaua berbera da zuritzen dagoena zuhaitz talde berbera.
Gu, orduan ginenok, jada ez gara orduan ginen berberak.

Dagoeneko ez dut maite, hori da egia, baina noraino izan nuen maite. / Dagoeneko maite dut, baina... eskuartean izan eta... ardura ezaren erruz egun galdu dut.

Nire ahotsa zebilen haizea aurkituko zuela baldin eta haren entzumena ukituko banu.

Besterena / Inorena. Besterena / Inorena ez da izango.
Aurretik nire mun emanaren izan bezala.

Bere ahotsa, bere gorputz gardenak. Bere begi muga gabeak.

Dagoeneko ez dut maite, hori da egia, baina maite dut agian.

Hain da laburra amodioa, eta hain da luzea ahaztura.

Gau honen antzekoetan izan nuelako beso artean.

Ez da ene arima lasaitzen hura galdu eta gero.
Nahiz zaurietan hau bera egiten didan azkena izan, eta bertso hauek ere berari idazten azkenak. / Ginenok, garenok eta izango garenok izaten jarraitzeko, azkenik ez. Ez borrokatu gabeko malkorik, ez saiatu gabeko tristeziarik, ez beranduegi denean damutzeko betarik. Zainduz gero, bidea luzea da, oparoa eta nortasunekoa.

Pablo Neruda (1904 - 1973)

"Amodiozko hogeita poema eta kanta bat bakar-mindua" (1924) [20. poema]

etorkizuna



Josune v. de mendizabal

Eraztunen jauna

"Eraztunaren Gudaren amaiera da. Dorre Ilunera iritsi dira hobbitak, eta han **emandako urratsek baldintzatuko** dute Sauronen erresumaren **nondik norakoa**. Itzalaren aurkako azken borroka ez da nolanahikoa izanen. Guztia amaituta, ordea, **aro berria hasiko da...**"

Eraztunen Jauna. Erregearen itzulera. John Ronald Reuel Tolkien

Zein kolore jarri nahi diozu zure bideari?
Zein da historiak dakarren hurrengo pasarteak?
Zein orrialdetara egingo duzu salto orain?
Eta abentura honen protagonista bazina?
Eta baldin bazara?

Emadazu eraztuna. Ez daukat nik orain atzetan horrelakorik eramateko beldurrik, ezta lotsarik ere. Ohorea baizik. Ni, zu, baikara gure lurraren haziaren eroale.

Joxe Antonio Artze, Ortzia Iorez, Lurra izarrez poema liburutik

Etzak uste, mutiko,
guapoagoa izango haizenik
erdaraz hitzegiteagatik;
tontoa bahaiz euskaraz
ez haiz azkarragoa izango erdaraz.

Etzan uste, neskato,
ttuntunagoa izango haizenik
euskaraz mintzatzeagatik;
itsusia bahaiz euskaraz
ez haiz politagoa izango erdaraz.

Euskaldun asko, haundiki nahiz ttipiki,
lotsatzen da eta ahalketzen,
arrotzen erdara ongi ez hitzegiteaz,
ez hala
etxeko euskara gaizki mintzatzeaz.

Bilatzen baduzu ere arreta haundiz,
ezetz aurkitu jendaurrean ospetsuki
mintzo ohi direnen artean, batto,
politikari edo letradun euskaldunik,
balorerik lukeenik,
euskaraz egiten duen bezain gaizki
erdaraz mintzatzera ausartuko litzatekeenik?

Euskaldunok besteren erdara ikasi baduzue,
ez al da bidezko, eta legezko,
bestek ere zuen hizkuntza ikastea,
berena ere duketen euskara jakitea?



eguzkiko artxiboa

LISBOA

maite lkue

Lisboa, aurkitzaile anitzen mundu berrirako ate irekia
itsaso gabeko portu sonatua
Lisboa, zaharra eta berria
zaharra bere alderik herrikoienean, Alfaman,
erdi aroko gaztelu eta kale txiki artean, arabiarren aztarnak nonahi
berria eta modernoa, Baixa eta Chiadon
kale bizi eta jendetsuak, globalizatutako komertzio errepikatuak,
kafetegi erromantiko eta literatura habiak
desberdintasun sozialen aurpegi gosetiak aurrean
Lisboa, historiko eta abangoardista, Belemen
antzinako monumentu irmoak
turistak beste museo berezitu
Lisboa, kultura aberastasuna eta multikulturalismoa
idazle handien jaioterria,
mestizaiaren ondorioz jasotako ondare baliotsuak,
fadoaren nota malenkoniatsuak kaleak margoztatuz
Lisboa, goitik eta behetik
goitik, zubietatik, igogailuetatik eskaintzen diren panoramika
ikusgarriak
behetik, bere auzoetan barna aurkitutako malda ankerrak
Lisboa, geldo eta azkar
geldoa bere tranbien ibilera pausatu eta gozoan
arinak, nazioarteak hirian eragindako aldaketak,
Lisboa, ura eta lurra
Ura, Tajo eta Atlantiar itsasoaren menpekotasuna historian zehar
itsasoaz bestaldeko produktu gaztuak
Lurra, antzinako metropolia, Lisboa.

ALFAMA

Madredeus, 1994

Agora,
que lembro,
As horas ao longo do tempo;

Desejo,
Voltar,
Voltar a ti,
desejo-te encontrar;

Esquecida,
em cada dia que passa,
nunca mais revê a graça
dos teus olhos
que eu amei.

Mã sorte,
foi amor que não retive,
e se calhar distrai-me...
Qualquer coisa que encontrei.

Orain gogoan ditudala tenorean
barreneko orduak; itzultzea,
zuregana itzultzea, zurekin topo
egitea desiratzen dut; ahantzita,
aurrera doan egun bakoitzean, ez
nuen berriro ere zure begien grazia
ikusi, maitaturiko begiak. Zorte
txarra, maitasun hori ez nuen
mantendu, akaso lekoratu
ninduen... kausitutako zerbaitek.

e.b.z.



ORBAITZETA. Nafarroa

Bihotzean zaramatzat, polit hori

e.b.



Zentzugabekeriak itotako ltoitzek negar minez so egiten digu bere ingurutik autobusez igarotzen garenean. Neure burua, eztarria, begiak eta bihotza ere ito egiten dira basakeria hori ikustean. Ez ditut ikusi nahi hemendik urte batzuetara urez estalita egongo diren paraje liluragarriak, min egiten didate, negar egiteraino, mina. Bidean aurrera goaz, gure txoko maitagarri eta berezi horretara goaz: Orbaitzeta. Lasaitasunak harrapatutako herria. Lurrak, urak eta zeruak bat egiten duten Euskal Herriko txoko ederra. Irati ibaiaren urek goxo inguratzen duten herri xarmanta.

Heldu gara. Hemengo usaina berezia da, Orbaitzetako usaina da, mendetan herrian egon den usain berbera da, ziur nago. Eguzkia mendien atzetik ezkutatzen ari da dagoeneko, eta belarraren freskotasuna azalean itsatsi egiten zaigu. Txakurren hotsa

baino ez da entzuten herrian, eta urrunago, traktoreen zarata. Hemen ez da ezer gertatzen. Edo agian dena gertatzen da. Bizitza bera ari da gertatzen Orbaitzetan. Orbaitzeta bizitza delako. Bizitza Orbaitzeta delako.

Bihotzean zaramatzat herri xarmant hori, zeure erritmo lasaia eta zure txikitasunaren handitasunarekin. Eta zurekin, nire bizitzako oroitzapenik ederrenak. Iratiko urek zaindu zaitzatela.

edurne begiristain

LOPIDANA Araba

josune v. de mendizabal

Zuri-beltzeko argazkiari begira,
Oroitzapen ugari nireganatu.
Paper gainean plasmaturik bizitza ziklo luzea.
Belaunaldiko historia amaigabea.
Eguna lainotzen denean bezala
eguzkiak ez da existitzen.
Margoak estaltzen dituen harriak badira dagoeneko
arbasoen lekuko mutur bakarrak,
oroitzapeneri ezin alde eginez.
Atea zeharkatu dut eta sukaldeko usainak agurtu nau.
Amona ikusi dut bertan, garai batean bezala.
Treskatik etxeko txorizo goxo atera du txerrigantzaz estalia.
Oraindik ere gogora ekar dezaket.
Kalean belarraren freskotasunak laztantzen nau.
Neguan goibel eta loti zegoen geriztondoak
gazte somatzen dut aurren; aitona landatu zuenetik 30 urte bete badira ere.
Lorak ditu. Lora ugari.
Paseoan nabil,
postal eder honen barruan
herri txiki honetan,
nondik gutako batzuen historiari
hasiera eman zitzaion.
Non udaberriro zuhaitzak esnatzen diren.

ZIMBAWE

Sentsazioak

Seguru asko zoazen tokiak sortaraziko dizkizula, baina egia ere bada hauek biziagoak edo ez izan daitezkeela desberdintasun kulturalen arabera, arraza, hizkuntza...; eta ziurra dena da Zimbawen talka itzela izango dela.

Gezurra dirudi, baina herri honek (Harare hiriburua eta toki turistikoenak izan ezik)... Tarzanen pelikulen antza du! Eta apika horrexegatik herri honek asetzen zaitu hainbeste, globalizazio entzutetsuak oraindik gure Lur osora heldu ez izanagatik. Gizakiarekiko elefantearen nagusitasuna, biek bide berean elkarrekin topo egiten dutenean, oraino existitzea, gizon eta emakume asko duela ehun urte legez txaboletan eta egunerako daukatenarekin bizitzea, usainak, Naturaren indar itzela (Baboos edo egundoko zuhaitzak, Victoria urjauziak...), zurekin bidean bat egiten dutenen irribarre zinezkoa, ezeren trukean argazkiak jare egin ahal izatea, zure begiekin ordura arte telebistako saioen bitartez ezaguturiko animaliak ikusi ahal izatea... Oso zerrenda luzea da eta segur aski Afrika beltzeko lurralde honek sortaraziko dituen sentsazioak oso desberdinak izango dira bisitatzen duten horiengan.

edorta sanz. orrazketak: e.b.z.

BARDEAK BIZIKLETAZ

Nork esan zuen Euskal Herrian basamortu bat aurkitzerik ez zegoela? Ez da harea fineko ohiko basamortua, baina Bardeak oso leku desberdina da, ia ilargikoa, urik gabe eta berau bizikletaz ibiltzeko oso egokia, mapa ugaritan aurki daitezkeen ibilbideetako bati jarraituz.

Horietatik at, eta teoriaz debekatuta badago ere, tiro eta bonbardaketa-gunera hurbiltzea merezi du, zeina (eta milaka aurkako protesta izan arren) espainar ejerzitoak darabilen. Zeharkatzea debekatua dioten kartelen bidez mugatutako eremua da, non ehiza-hegazkinen, bonbaketarien, bonben... hondakinak aurki

baitaitezke... Ziur hor argazki bat baino gehiago egingo duzuela. Espero dezagun

hemendik gutxira desagertutako zerbaiten estalperik gabeko museoa izatea.

Alojamenduari dagokiolarik, Bardeetan bertan izan daiteke, Nuestra Señora del Yugo (Argedas) deritzan aterpean, edota inguruetako

herrietako batean. Bestetik, Oliteraino hurbiltzea ere interesgarria da, bere gaztelu bikainari bisita egiteko, garai urrun bateko errege-erreginen udako etxea; bere sekretuak hobeto ezagutzeko bisita gidatua egitea ere ondo dago.

Bakarrik aholkutxo bat: euria eginez gero ez du merezi inguru zoragarri hau bizikletaz ibiltzea, benetako lokaztegi bilakatzen baita.

edorta sanz. irrazketak: e.b.z.

Aragoin herrixka bi mendi artean, natura osagaiez horniturik Pirinioetako tontorrek nonahi eta Lanuzako lakua bare haiei so. Uztailaren 9tik 31arte aldiz musikaz blaitu ziren herriok. Pirineo Sur festibala bere XIII. edizioan, munduko musika herrikoiak biltzeko xedez. Lakuaren gaineko eszenatokiari darion musika etnikoaz gozatzeko aukera paregabea duzu bidaiari, munduko musikak entzun, ezagut, uki ditzakezu Pirinioetako izarrak heldu modura. Aurten Afrikarako begirada, Sahel, mugako musikak eta bertan, Mauritania, Mali, Niger, Cabo Verde, Senegal eta Burkina Faso ezohiko protagonista nagusi. Mundu zabalean murgiltzeko berriz, beste hainbat adierazpen, erakusketak, munduko artisautza ezberdinak, gastronomia pupurria, dantza tailerrak, Afrikako errealitatera hurreratzeko zeluloidea... Kolore, etnia eta burrunba anitzeko topaketak natura eta musika uztartzen diren lekuan bertan.

SALLENT DE GÁLLEGO



maite lekue

LANDAK, Frantziako altxor hurkoa



Miarritzetik

hasita Arcachon herri bitartera hedatzen da ondoko herrialdearen altxor txikia. Kantauri itsasoa eta izugarritzko pinuen basoa dira lurralde honen muga naturalak. Tartean, arrantzaleen herri txiki atseginak, iparraldetik hegoaldera 100 kilometro baino gehiago luzatzen den lurralde honetan. Cap Breton eta Hossegor dira ospetsuenak, turistaz gainezka, baina lasaitasun kutsua inoiz ere galtzen ez dutenak.

Landak ureztatzen duen itsaso haserrearen olatuak mundu osoko surflarien ametsa dira. Landak inguratzen dituen Europako basorik handiena mundu osoko naturazale eta kanpinlarien ametsa da. Gainera, ezin ahaztu, bertako gastronomia berezia. Ahatea eta bere deribatuak bertako elikaduraren oinarri dira. Arrantza eta itsaskiak ere ez dira falta. Hitz gutxitan esanda, hondartza amaigabea, pinuen baso zoragarria eta lasaitasuna biltzen dute Landek. Surflari eta naturazaleen paradisu, finean.

saioa fdz de arangiz



PORTUGAL

estitxu breñas

AINDA

Madredeus, 1994

Vou dizendo
Certas coisas
Vou sabendo
Certas outras
São verdades
São procuras
Amizades
Aventuras
Quem alcança
Mora longe
Da mudança
Do seu nome
Alegria
Vã tristeza
Fantasia
Incerteza
São verdades
São procuras
Amizades
Aventuras
Quem avança
Guarda o amor
Guarda a esperança
Sem favor
Ainda...

oraindik

Esanez noa gauza batzuk.
Jakinez beste batzuk.
Egiak dira. Bilaketak.
Adiskideak. Abenturak.
Lortzen dituen hura bere
izenaren aldaketatik urrun
dago. Alaitasuna. Tristezia
hutsa. Ametsak. Ezbaia.
Egiak dira. Bilaketak.
Adiskideak. Abenturak.
Aurrera egiten duen
horrek maitasunari
eusten dio, itxaropenari.
Mesederik gabe.
Oraindik.



MENSAGEM AO BERNARDO ATXAGA

Joseba Sarrionandia, Nueva Etiopia. 1996

BASTA-nos um novo livro sob um
velho candil.

Para vivermos são suficientes
um coração como um morango
e a geografia onde os nossos passos
possam caber.

Elijo os mapas que você fez, a planta
da cidade,
a guia de Etiópia, as cartas de Obaba
e Hamburgo.
E cada dia ando através desta fronteira
que você indicou em vermelho

entre a nossa própria vida e a terra
incógnita.
Eu queria viver com você neste inferno
florido
neste paraíso de cinzas
que possivelmente Bernard d'Etchepare
sonhara há muito tempo.

bernardo atxagarentzako mezua

Nahikoa daukagu liburu berri batekin kriseilu
zahar baten argipean.
Bizi gaitezen nahikoa daukagu marrubi baten
moduko bihotzarekin,
eta gure urratsek sartzea daukaten geografia.
Egindako mapak hautatzen ditut, hiriko
planoa,
Etiopiako gida-liburua, Obaba eta Hanburgoko
mapak.

Eta egun bakoitzean gorritz markatutako
muga honetan zehar nabil
geure bizitza eta lur ezezagunaren artean.
Zurekin bizi nahiko nuke infernu lorekun
honetan,
errautsezko paradisu honetan
agian Bernard d'Etcheparek amestutakoa
duela denbora asko.

Europa eta Asia.

Erraldoi bi nire gorputzaren alde batera eta bestera.

Erdian ni.

Ilusio optikoa bailitzan nire eskumako eskuak bat uki dezake,
ezkerrekoak bestea laztandu bitartean. Ura tartean.

Mugimendua lurmutur honetan.

Zer egongo bestean?

Alderik ez da sumatzen.

Zubi luze batek elkartzen ditu.

Itsasontzi batean Bosforoko ur epelak gurutzatuz.

Kaioek zerbait diote baina ez diet ulertzen.

Segurki beraiek ere ez dakite zergatik diren bi mundu
bat izan beharrean.

Asiako puntatxora biratu du kapitainak.

Aurrean dakusadan zain potoloari bizitza dario.

Ziummmm-ziummmm,

Kotxeak batetik bestera.

Makrogizarteen ertz bi,

estuak, akaso antzuak.

Barrura eginez gero

mikroerrealitatea lurra zabalduz doan heinean.

Asiara heldu naiz.

Marmara itsasoaren ur baretuenak zeharkatu eta

arrainek prestaketa goxoena duten tabernan eserita nago,

Turkiaren alde europarrari so.

Hemendik barrura zer?

Besoak luzatzea bezala.

Istanbullen elkartuko gara.



Maroko iparreko kostaldeko herria.

Lasai eta mistikoa arratsaldeko lehen orduetan. Hitzontziak oso bertan aurkitutako gidalagunak.

Eguzkia sutan herri harresituaren baitan, freskotasuna karrika barneko etxe zuri enkalatuetan eta ipuinetako ate ttipi berdeak nonahi.

Kontrasteak, Afrikako sarrera izaki, edonon.

Txadorra eta bikini, marokiarra euskaraz, gizon piloa kalean, emakume gutxi hitz egiteko, whiskia eta whisky arabiarra, tea irakiten beroa jasateko, mende balderako ametsa...

Portugalдарrek lagatako kanoiak leku sakratuetan, gameluak hondartzan, taxista ausartak eta asto taxiak.

Ezezagunak zaizkigun usain exotikoak merkatuan, kilim-em kolore biziak zokoetan, medinetatik datozen kantuen oihartzunek emandako barea...

Herriaren adierazpenak kalean margoztutako muraletan, artisauen ondasuna bazarrean eta sentsazioak handitzeko Rif-eko erretxina.

Atlantikora ematen duen eguzkiaren hiltoki paregabea iluntzean, kuskus eta tajin gozagarriak bazkalorduan.

Alfonbrek ere kondairak dituzten herrialdea.

ASILAH



maite lekue


LUARCA (Asturias) Urdina eta berdea

Harkaitzezko lubakien artean sigi-sagan doan bidea hartu du trenak. Granitozko igarobideen artean sartzen gara, eta noizbehinka, itsasoaren olatuek labarren kontra jotzen duten parajeak ikusten ditugu. Eta bidearen amaieran, Luarca. Negro ibaiak herriaren arkitektura apetatsua xamurki inguratzen duen herria. Bertako kale estu eta harritatuek ibiltzera gonbidatzen dute, karriek bale indiano eta fragaten istorioak belarrira xuxurlatzen dituzten bitartean.

Eta Atalaia tik, olatu harrotuen gisako kaioen zalaparta. Bertan egonda ez da zaila imajinatzea baleetara joaten ziren arrantzaleak... Itsaso altuari so begira dagoen balkoi pribilegiatu honetan, itsasargi eta Andra Mari Zuriko elizetxearekin batera, Luarcako arbasoek atseden hartzen dute sorgindutako hilerrian. Zortea dute hemen atseden hartzen dutenek, olatuen, zeruaren eta harkaitzen artean ehortzita daude eta. Zortea dute.

Eta herriaren bestaldean, Cambaral auzoa albatzen da amildegian. Ibilbide ezinezkoak margoitzen dituzte bertako kale estu eta aldapatsuek, etxe ttipien arteko eskailera lerdenek... Berdea eta urdina. Arraina saltzen duten etxeetatik behien larreetara salto batean. Urdina eta berdea. Itsasoa eta lurra. Arrainak eta behiak. Luarca.

eduren begiristain



EKUADOR

Herri txiki bezain anitza. Kontrasteen herria. Hasteko, mendialdea, Chimborazo eta Cotopaxi sumendien begien pean, gizonezkoa eta emakumezkoa. Bertan, indiar pobreak eta beraiekiko arrazakeria zurien eskutik. Jaietan alkohol gogorra dute ihesaldi, arazoekin ahazteko. Otavaloak, ile beltz luzeko indiar dotoreak, dira bizimodua hobekien ateratzea lortu dutenak euren kalitatezko artisautzarekin. Bigarrenik, oihana. Eremu erraldoi ezezaguna. Misteriozua. Aberatsa. Hezea. Lanbrotsua. Eta aldi berean, poterearen edale ankerrek ustiatutako lurra, bertakoen bizitza eta erroen urraketa ekarriaz. Egur-industriak zuhaitzak klaskatzen ditu. Petrolioaren munstroek begien parean duten guztiari muzin egiten diote. Ur kutsatuek indiarren gaixotasunak areagotzen ditu... "Txitxa", harrerarako edaria. Hobe duzu edatea, bestela akabo, ez zaituzte euren komunitatean onartuko. Txitxa arrunta eta

hartzitutakoa. Azken hau jai-girorako. Sugeak, tarantulak, labezomorroak, pirainak, kaimanak, txinaurritzarrak... eta hotsak, denetiko hotsak. Banana, patata, arroza... eta txitxa. Eta hirugarrenik, bagoaz, pazifiko aldera... Beltzen eremua. Esmeraldas, gauzez oro har arriskutsu suerta daitekeen hiria, erdialdeko kale ilun eta itxi batzuetan behinik behin; espres emakumezkoentzat. Komunitateen eremuan murgilduz, barnealdean, pazifiko aldeko oihanatxoan, txalupatxoan ibaia zeharkatuz, lasaitasuna da nagusi, hiriarekin alderatuz. Bertan eurek duten guztia eskaini eta irakatsiko dizute, arazoak arazo, gaixotasunak gaixotasun, irribarrea ezpainetan, bai eta dantzan ere... beltzak dira!, Ekuadorreko Afrika.

estitxu breñas



KUBA, harro



Oraindik herri izaten jarraitzen duzulako harro zara. Mundu osoan bakarra zarelako, harro. Zure herritarrek biziki maite zaituztelako, harro eta pozik. Iraultzaz, harro. Sozialismoaz, harro. Munduaren aurrean, harro. Bakarra zara, Kuba, eta uzten badizute, gainontzekoentzat eredu izaten jarraituko duzu betiko.


Karibeko epeltasuna. Kaleetako algara. Solasaldiak. Rona. Mojitoa. Adiskidetasuna. Habanoak.

Zahar usaina duzu Kuba. Alkohola, hezetasuna, gasolina, oilasko errea, puruak, izerdia, itsasoa, hego haizea,... hainbat elementuz egindako zahar usaina duzu, Kuba. Zure karrikek usaina dute, barruan betiko geratzen den usaina. Etxe koloniarrek urtetan gordetako usaina.

Chan-Chan. Salsa. Sona. Bachata. Marakak. Denok kalera dantza egitera! Gorputzen mugimendu erotikoak. Aldaken mugimendu eroa. Bizitasuna.

Che Guevara-ren irudia. Iraultzaren oroitzapena, bizirik. Fidel Castroren kemena. Herria zuekin dago. ¡Hasta la victoria siempre!

eduren begiristain





yarel somonte

KUBA, DUINTASUNAREN EREDUA



Kubak milaka aurpegi ditu, milaka alde. El Chévere, horietako bat. Viñalestarra, barne-muinetaraino. Tabako ekoizlea, nekazaria. Adeitsua oso, duina. Kuba bera bezalakoa. Milaka alde, milaka lagun, milaka istorio, milaka zailtasun, baina aurretik duintasuna beti. Herri duina benetan, jende duina benetan.

Blokeoak itota hor dirau zutik. Ez indartsu baina bai indarrez. "Ez da erraza, compañer@", diote, baina dantza eta irribarre dotorea alde batera utzi barik. Poemak, paperik ezean, "Conchita" tomate poteen paperaren bueltan idazten duen herria. Garraiatzea batere samurra ez duen herria. Gabeziak gabezia, arazoak arazo eta akatsak akats, egoten dakien herria da Kuba, irakasten duen herria da Kuba, entzuten dakiena, ematen dakiena, hitz egiten dakiena... ezagutu beharreko herria!

Habana, Habana Vieja, film bat, izerdia, solasaldiak, lagunez gainezkako etxe hauskorak... gaez gazte ugariz jantzi ohi den malekoia; Viñales, lasaitasuna, adeitasuna, mendia, frutak, elkarrizketak, rona; Trinidad, dantza, musika, musikariak, mojitoa, gauaren dastatzea. Milaka lagun, milaka alde. Duina. Izaten uzten ez dioten herria. Silvio, Pablo, Santa Palabra, Son de Cuba, Polo Montañez, Habana Abierta, ... kantatzen duten Kuba; Taticak, Dainierysek, Inesek, Reinierrek, Myreidak... kontatzen dutena. Abagunea izanda munduari buelta emango liokeena. Duen barne indarragatik, duen duintasunagatik, duen heziketagatik. Izan nahi duen herri duina... Kuba.

estitxu breñas

SENEGAL mendebaldeko Afrikako atea

saioa fdz de arangiz

Alde handiko paisaiak aurki daitezke Mendebaldeko Afrikako herrialde jendetsuenean. Guztietan edertasuna da nagusi, naturala eta iragankorra aldi berean. Dakar, hiriburua, bertako tradizio eta europar eraginaren arteko nahasketa dugu, non kolonizazioak Afrikako kontinentean sortutako kaltea agerian geratzen den. Bertatik hegoaldean dagoen Casamance eskualderaino landaretza oparo eta bizia hedatzen da, herrialdeko barnealdean zabalitzen den basamortu zabal eta latzarekin alderatuz. Hondartza luzeak eta Siné-Saloum delta dira tartean dauden lurraldeak. Bertan, hezegune handiak; urmael, mangladi eta paduraz hornituak, dena animaliez gainezka.



Nolanahi ere, paisaiak ez ezik, Senegaleko kulturak eta arteak ere bizirik dira. Egun Casamancen bizi den Diola etnia eta ekialdeko eskualdeko Bassari etnia baliteke herrialdean suma daitezkeen bertako nortasun kultural bakarrak izatea. Diola herriak Senegal osoan onartu zuten musulman fedea arbuia zuen, bere sinesmen eta kultura babestu nahian, eta Bassari herriak bere bizimoduari eustea erdietsi du. Tamalez, atzerriko eragina sahiestezin bilakatu da azken urteotan. Hala eta guztiz ere, Senegalek Afrika beltzaren mendebaldeko ate nagusia izaten jarraitzen du.

Trena. Bere baitan ia toki guztietara hel zaitezke, gidatzeko, pedalei eragiteko, edota gasolinaz kezkatzeko beharrik ez izatearen abantailaz, zurekin batera bidaiatzen duen jendea ezagutzeko parada izateaz gain. Aukera hau, gainera, biderkatu egiten da, trenez bidaiatzeko Interrail era hautatuz gero. Txartel sorta moduko bat da, txartela erosi beharrik gabe zenbait herri (baldin eta zein den aukeratu Europako zonaldea) ibiltzea ahalbidetzen dizuna. Nondik zatozen eta nora zoazen apuntatu baizik ez duzu egin behar.

Horrela bidaiatzen duten "motxilero" ugari dago; hala, pentsatzeko modu desberdinak ezagut ditzakezu, zein toki bisitatu aholkatu diezazukete, non lo egin, jan... eta hori guztia trenez egiteak sortzen duen giro bereziarekin inguratua.

INTERRAIL



edorta sanz. orrazketak: e.b.z.

CHICAGO, HAIZEAREN HIRIA

saioa fdz de arangiz

Hiri

ezezaguna dugu Chicago, izan ere, haizearen hiria deritzon metropoli honek txoko erakargarri anitz gordetzen ditu bere baitan. 1871. urtean izugarrizko sute batek Chicago ia guztiz suntsitu bazuen ere, pixkanaka kulturen aberatsa den hiri moderno berreraiki zuten bertakoek, egun AEBetako hiri nagusienetarikoa izaki.

Lur gainetik doan metroa amarauna bailitza hedatzen da hiri osoan barrena, begien aurrean etxe-orratz amaigabeak, eraikin dotoreak eta auzo xarmangarriak agerian utziz. Zehazki, Wicker Park eta Belmont auzoek giro alternatibo eta bohemioa ematen diote hiriari, bertan artista moderno gehienek euren lana garatzen dutelarik. Auzo hauek izugarrizko ospea lortu dute azken boladan; ireki berri diren jatetxe eta tabernak makina bat dira eta jende z gainezka egon ohi dira, giro ezin hobea sortuz.

Michigan lakuaren ertzetan altxatzen den hiri honek kultura, erlijio eta jende anitz biltzen ditu. Komunitateak bere izaerari eusten saiatzen dira, bakoitzaren batasuna joera nagusia izaki. Auzo grekoen jatetxeak, komunitate hinduen dendak, afroamerikarren South Side auzoa, mexikarren Cicero eta Pielsen auzoak eta Chinatown dira bilgune hauetako batzuk, non kultura bakoitzaren adierazleak edonon baitira.



GARBIÑE URIARTE, GASTEIZKO JAIEN KARTELAREN IRABAZLEA

“Txupinazoaren energia nabarm

Uda osoan gure hiriaren jaien adierazlea izango den kartelak txikitan irakurtzen genituen komikiak gogora ekartzen dizkigu. Garbiñe Uriarte gaztea kartel honen egile dugu, Araiaiko 25 urteko euskalduna, hain zuzen. Leioako unibertsitatean Arte Ederrak ikasi ondoren, urte bete eman zuen Milanen diseinu grafikoa ikasten. Honela diseinuaren munduan murgildu zen erabat. Egunotan, diseinu grafikoa egiten duen Gasteizko enpresa batean egiten du lan. Aisialdia bere ideiak garatzeko erabili ohi du. Honela jaio zen “Txupinazo” deritzan kartel irabazlea, hiriaren festa tradizionalei hasiera ematen dion leherketa irudikatzen duen kolorez beteriko txartela, hain zuzen.

Zer komunikatu nahi izan duzu txartel honekin?

Kartelak txupinazo baten eztanda irudikatzen du komiki bat izango balitz bezala, hau da, suziariaren ibilbidea eta ondorengo leherketa ikus daiteke. Izan ere, ohizko “pum” aren orde, “Cele dooon” bat irudikatu dut. Nire asmoa Gasteizko jaien mementorik indartsuena irudikatzea zen. Nire ustez, txupinazoak energia piloa biltzen du Andre Maria Zuriaren plazan eta horixe nabarmentzea izan zen nire nahia. Gainera, mota hauetako karteletan agertu ohi diren sinboloak baztertu nahi izan ditut, kolorez beteriko kartel original bat egin nahian.

Nola bururatu zitzaizun txartelean adierazten duzun ideia?

Egia esan, buruari buelta asko emanez. Ideia-jasa egin nuen lehendabizi, gero ideia batetik beste bat ateratzeko. Honela ia hilabete eman nuen, izan ere, txartelarekin buru-belarri bi aste inguru egon nintzen. Lehendabiziko



diseinua eskuz egin nuen, ondoren ordenagailura pasatzeko.

Txartelak komiki baten antza izaki, zein izan da zure etorria?

Nire oinarria Roy Lichtensestein izan

da, 60. hamarkadako margolari famatua, hain zuzen. Artista pop art-aren adierazgarri nagusienetarikoa izan zen eta komiki-bineta oso-oso handiak egiten zituen, marrazki oso potenteak. Oso dut gustuko. Beraz, horretan oinarritu nintzen.

Halako lehiaketa batera aurkeztu zaren lehenengo aldia izan al da?

Normalean ez naiz halako lehiaketetara aurkeztzen. Nire herriko jaien kartela egiteko lehiaketara aurkeztu naiz noizbait, baina egia esan, ez da Gasteizkoa bezalakoa, Araia-koan bakarrik hiruzpalau pertsona aurkeztzen baitira. Dena den, gogo handia nuen halako ekintza batean parte hartzeko, baina orain arte ez dut denborarik izan.

Lehendabizi parte hartu eta irabazi...

Bai, oso pozik nago... aurten 57 pertsona aurkeztu dira lehiaketara eta ni izan naiz irabazlea.

endu nahi izan dut kartelean"

Nola hasi zinen diseinu grafikoaren munduan?

Arte Ederrak ikastean mundu hori ezagutu nuen pixka bat eta gero Milanera joateko aukera azaldu zitzaidan, zehazki, diseinu grafiko eta industrial ikasteko Erasmus beka bat lortu nuelako. Azkenean diseinu grafikoak harrapatu ninduen! Egun, horren inguruan lan egiten duen Gasteizko enpresa batean nago lanean eta batzuetan aisialdia txartelak nire kabuz egiteko erabiltzen dut.

Gasteizko jaiez urtero gozatzen den horietakoa al zara?

Bai, behintzat egun batzuk egotea gustatzen zait. Aurten oporrak abuztuaren 15ean hartzea erabaki dut, Gasteizen egun batzuk egon ahal izateko. Asko dut ospatzeko eta!

Irabazitako saria egun horietan gastatuko al duzu?

Ez! Ez dakit ziur zer egingo dudan diruarekin... memento, bidaia bat egitea pentsatu dut.

Zertan ari zara orain?

Etorkizunerako planik bai?

Memento honetan txartel berri bat diseinatzen ari naiz. Gasteizko jaien txartelaren lehiaketa irabazi ostean, Araiaiko Umorezko Antzerki Jaialdiaren txartela egitea eskatu didate. Beraz, horretan nago. Hurrengo urteari begira, hiriko beste deialdi batera aurkeztea gustatuko litzaidake.

saioa fdz de arangiz



edorta sanz

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER

AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30



Sta. Luzia kalea, 5

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Dalvez
argitarazleak

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinu.euskalnet.net

ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN




Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Argazki - Estudioa
Erramun

Heracio Fourrier, 23
Tfnoa: 945 21 02 06

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 945 26 19 91
01004



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
aritzean) Tfnoa: 945 25 03 52

>GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA

945 22 21 53



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

>GEU

Izan zaitetz HARPIDEDUN!!

>GEU

AGENDA

KIROL ETA AISIALDIKO MONITOREAK BEHAR DIRA.

Euskara eta kirola uztartzeko asmoz, ARKI egitasmoa bultzatzen ari da Bagare Euskal Tokia.

Egitasmo honen helburua kirol aisialdiko ekintzen inguruan euskararen zabalkuntzaren alde lan egitea da, eremu batzuetan euskarari sarbidea emanaz -helduentzako kirol ikastaroetan, adibidez-, eta beste eremu batzuetan euskararen alde egiten diren ahaleginei laguntza tekniko eta profesionala eskainiz -umeentzat eta gazteentzat antolatzen diren klasez kanpoko kirol ekintzei, adibidez. Helburu hori lortzeko gestio gintza profesionala ezartzea planteatzen dute.

Kirol monitoreak eta aisialdirako begiraleak behar dituzte lan hori burutzeko, eta beraien asmoa da baldintza egokiak eskaintzea lan hori egiten duten lagunei.

Arlo horretan lan egiteko prest baldin bazaude zure curriculum vitae postaz Bagare Euskal Tokira bidali (Aiztogile kalea 62, behea. 01001-Gasteiz) edota mezu elektronikoaren bitartez bidali arki.aisialdia@euskalerrria.org helbidera.

erakusketak & lehiaketak & ikastaroak & mintegiak & jardunaldiak

• JUAN ZELAIA IV. SAIKERA SARIA (IRUÑEA, 2004)

Euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak. Antolatzailea: Pamiela etxea. 948326535 / pamiela@pamiela.org Epea: abuztuak 31

• Jose Antonio Loidi ikerketa beka-2004

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Iraupena: 12 hilabete (9.020 euro). Aurkezteko epea: irailak 10-24 Antolatzailea: Irungo Udala. Oinarriak, informazioa eta eskaera-orri ereduak: www.irun.org

• BECERRO DE BENGOA XVI SAIKERA LEHIAKETA

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818) Lanak aurkezteko epea: irailak 14

• IGNACIO ALDEKOA XXXIII IPUIN LEHIAKETA

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818) Lanak aurkezteko epea: irailak 14

• "Euskal Gizartearen egoera" Saria

Antolatzailea: Eusko Jaurilaritza Informazioa: 945018069 / www1.euskadi.net/estudios_sociologicos Epea: irailak 24, 12.00etan

• Pedro de Atarrabia XVI. Literatur Sariaketa-2004

(kontakizun laburrak) Informazioa: Atarrabiako Udala-Kultura Zerbitzua Epea: irailak 17

• INKA TXIKIA

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Atala: Gidoia. Oinarriak: www.ed-saure.com Epea: urriak 23

• ERNESTINA DE CHAMPOURCIN XV POESIA LEHIAKETA

Antolatzailea-Informazioa: Arabako Foru Aldundia (945181818) Lanak aurkezteko epea: irailak 14

• Hezkuntza Iraunkorra. Master eta Ikastaroak Internet bidez. 2004-2005 ikasturtea

Ingurumena, Landa inguruneke Turismoa, Nazioarteko Merkataritza, Giza Eskubideak, Eusko Ikasgaiak, Hizkuntza Plangintza (HIZNET). Izen-emate epea: irailak 30 Antolatzailea: Asmoz Fundazioa. Informazioa: 943212369 / asmoz@asmoz.org / www.asmoz.org

• INGURUMENARI BURUZKO ALEGIAK

SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Umore grafiko eta tira komikoaren atala. Oinarriak: www.ed-saure.com Epea: urriak 30

• GRAFFITI LEHIAKETA (Gazte Sortzaile Sariak)

Graffiti-zirriborroak aurkezteko epea: irailak 25. www.topagunea.org

geugaste@grn.es

Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen

txokoa


JESUS GURIDI, NAFAR MUSIKARI HANDIA

1886an jaio zen Gasteizen. Tikitandik musikak duen erakargarritasunak bete-betean harrapatu zuen, zeren eta ohiko lehen urratsak alderdi batean uzten baditugu ere, garai hartan, edota egun balitz ere, hamar urte zuenean musika idazten hasia zela jakitea, zalantzarik gabe, azpimarragarria baitzaigu. Bada, hiru urte beranduago piano kontzertu bat konposatu eta eskaini zuela plazaratu da zenbaitetan. Alta, formakuntza tekniko aldetik Nafarroa Osoa nahikoa tipia geratu eta musika ikasketa luzeak Europaren baitan burutu behar izan zituen, bide batez kultur barrena aberastuz.

Ez zituen arbasoen sustraiak ahanzi, halere, eta Nafarroarat itzultzeko erabakia hartu zuen, urte haietan ekonomikoki abiadura bizian sendotzen ari zen bere hiri handiaren, bizkaitar hiriburuan den Bilbon finkatuz. Irakasle lanetan maisua zela aipatu da behin eta berriz, baita organojole edota, lehen iradokin bezala, konposatzailearen gisa maila handia erakutsi zuela ere, opera, koralak eta bertze osatuz. Edonola ere, zerbait aipatzekotan, euskal munduan giroturiko bitxi biribilak ditugu eredugarri, hala nola "Amaia", "Leyenda Vasca", "Mirentxu", "El Caserío", edota guziz hunkigarriak diren "Diez Melodías Vascas", non, bertzeak bertze, salbaturiko nafar doinu herriko batzuek euskal jendearen nortasunaren berri emaiten baitigute, bere "Ezpatadantza" ospetsuaren gisa. 1936ko gertakariak gogor astindu zuten, eta giro erasokor hartan euskal zibilizazioari lagunduriko ekimenak itzali ziren. Madrilen hil zen, 1961. urtean.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO OSTALARITZA ESKOLA

GAZTA BUDINEZ EGINDAKO BIHOTZAK, KANELAZKO GALLETEKIN



GAZTA BUDINA:

750 G ESNE
250 G GAZTA BIGUN (ZABALTZEKO)
200 G AZUKRE
300 G ARRAUTZA (6)

• ARRAUTZAK (1) 50 G
• GURINA 310 G
• IRINA 530 G
• KANELA, NAHI ADINA

LAUKIZUZEN FORMAKO MOLDE BAT KAREMELUZ IGURTZIKO DA ETA ERRETILU BATEAN EZARRIKO DA, MARIA BAINUAN EGITEKO.

ESNEA EGOSI. BOL BATEAN AZUKREA ARRAUTZEKIN ETA GAZTAREKIN NAHASTU ETA, ONDOREN, IRABIAGAILUAREKIN BIRRINDU. NAHASTU ESNE BEROA EGIN BERRI DUGUN AZUKRE, ARRAUTZA ETA GAZTA NAHASTEAREKIN. KREMA IRAGAZIKO DA, IRAGAZKI BAT ERABILIZ, ETA GUZTIA MOLDERA ISURIKO DA. MARIA BAINUAN JARRIKO DA ETA LABE BEROTAN SARTUKO DA (170° - 50'). EGITEN DENEAN, UTZI EGUN BATEZ ETA MOLDE BATEKIN BIHOTZ FORMAKO ZATIAK EBAKI, GERO PLATEREAN APAIN-APAIN PRESTATZEKO.

KANELAZKO GALLETEK

• LUSTRE-AZUKREA 110 G

IRINAREKIN SUMENDI BAT OSATUKO DA ETA ERDIRA ARRAUTZA, GURINA, IRINA ETA KANELA BOTAKO DIRA. NAHASKETA HORI ESKUEKIN LANDUKO DA, BAINA EZ GEHIEGI, GEHIEGI EZ LODITZEKO. HOZKAILUAN UTZIKO DA DENBORALDI BATEZ, OREA PIXKA BAT GOGORTZEKO. MAHAIA IRINEZ HAUTSEZTATUKO DA ETA ZABALDU EGINGO DA, LODIERA EGOKIA EMAN ARTE. ONDOREN, PASTAK MOZTEKO ERABILIZ, NAHI DUGUN FORMAKO PASTAK EDO GALLETEK EBAKI. ERRETILU BATEAN UTZIKO DIRA ETA IRABIATUTAKO ARRAUTZA BATEKIN IGURTZIKO DIRA. LABEAN EGIN (180°C - ±15').


PLATEREAN AURKEZTEA

PLATERAREN ALDE BATEAN BIHOTZ FORMAKO HIRU BUDIN ZATI EZARRIKO DIRA ETA, ONDOAN, KANELAZKO GALLETEK EZARRIZKO ZAIZKIO, SALTSA PIXKA BATEKIN ETA FRUTA ZATIEKIN.

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEA ABIAN

Geurekin Mendira izeneko ekimenari, datorren urtarrilean 10 urte bete behar dituenen, ume bat jaio zaio! Bai, halaxe da. Asko zarete zenbaitetan iganderen bat edo beste Geu Elkarteko lagunekin mendi irteera partekatu duzenok azken hamarkada honetan. Egistamoak bere bidea egin du orain arte, eta egiten jarraituko du hemendik aurrera ere. Hala eta guztiz ere, bere etorkizun hurbileko urtebetezea ospatzeko ahaleginen barruan talde berria eta berritzaile bat osatzea erabaki dugu. Nola?

Geurekin Mendira taldeak ikasturteko egitaraua eskaintzen eta hilean behin irteerak egiten jarraituko duen arren, oraingo honetan ibilbide ezberdinak pentsatuko dituen auzo izatea proposatzen dizu. Horretarako Geurekin Mendira Gazte Taldea jarri dugu abian. Ekimen berriak prestatzen eta burutzen gogotsu aritu dira zenbait lagun azken hilabeteotan. Gasteizko gazte euskaldunei eta mendizaletasunari eskaintza bat egin nahian datorren irailaren 26rako ibilbide bat atondu dute. Zer esanik ez zu ere, zuek ere, taldean partaide izan zaitezketela!! Ekimenak prestatzen diharduen lagun taldeak zure laguntza ere beharko du, hortaz, ideiak, proposamenak, iradokizunak... baldin badituzu edota talde eragilean sartu nahi baduzu deitu GEU Elkartera (945222153). Aldiz, ardurarik hartu nahi ez bazenute, berdin-berdin etor zaitezketela GEUREKIN MENDIRA, txangoetara gonbidatuta zaudete eta. Aro berri bati hasiera emanez, GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEARI agurra egiten diogu eta gurasoengan ikusitako esperientzia eta beteranotasuna kontuan izanda urte luzeko bizitza opa diogu!!!!



GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN I. IRTEERA

LAGRAN-PALOMARES- -RECILLA-PIPAON

Irailaren 26an, egun osokoa
(bertan bazkaldu)

Irteera goizeko 9etan, autobus
geltokiko Lagranera doan busa
hartzeko (hortaz, puntual izan!!!!)

IBILBIDEAREN AZALPENA:

Ibilbidea 756 metrora dagoen Lagran herriko plaza duen iturritik hasiko dugu; bertan hilerrirako norabidea hartuko dugu, eta horretarako errepidea eta plazako zuhaitzak zeharkatuko ditugu. Mendilerroan zoko norabidean, kaleen artean joanda ezkerretara dagoen bidea hartuko dugu hilerriraino iritsi arte. 10 minutu pasata aurkituko dugun bidegurutzean eskuinetara hartu eta nekazal bide hauetatik mendilerroko haranean, ur-andel handi bateraino ibiliko gara. Heltzen garenean ibilbidearen 35 minutu burutuak izango ditugu. Hemendik aurrera pagadietan sartuko gara.

Pagaditik zati luze samarra ibili ondoren beste bidegurutze batekin topatuko gara (50 minutu). Gure eskuinean Laziturria dago, ibilbide osoko iturri bakarra. Behin iturriira iritsita bide nagusia utziko dugu baliztatuko ezkerreko bidexka hartzeko.

Bidexka estua eta itxia da eta pagaditik zehar tontorreraino igoko gaitu. Ez du galbiderik, bi alboetan zuhaixkak aurkituko baititugu, beraz, lasai asko jarraitu ahal izango diogu ibilbideari.

Gailurretik oso hurbil gaudela, harkaitz handi bat ikusiko dugu. Bertan beste bidegurutze bat dugu (1:40). Ezkerreko bidea hartuta ibilbide luzea eta

erraza izango dugu; eskuinekoa hartuta aldiz, motza eta zaila. Ibilbide erraza hartuta, mendia inguratzen du eta beste aldeetan sastrakak izango ditugu. Azkenen, gailurrera iritsita (2:00) paisai zoragarria ikusteko aukera izango dugu (eguraldiak laguntzen badu, eta baietz espero).

Bapo jan eta gero, ibilbideari ekingo diogu berriz, mendealderako norabidean eta mendilerroari segika, paisaiak gehiago gozatzeko aukera izan ahal izateko. Handik gutxira Recilla mendian izango gara (2:45). Hemendik aurrerakoa jaistea izango da gure lana. Jaitsiera etorri garen norabidea jarraituta egingo dugu. Behin Cerver eta Recilla arteko lepoan egonda, bidegurutze batekin topo egingo dugu (3:00). Bertan eskuineko bidea hartu eta pagadietara itzuliko gara.

Dexente jaitsi eta gero bide gehiagorekin elkartuko gara. Lehendabizikoa (3:25), gurutzatu egin beharko dugu, bigarren ordea (3:35), eskuinetara joko dugu ezkerretik datorren bide bati jarraituta, eta azkenekoa (3:40) eskuinetara egingo dugu, zelai bateraino iritsi artean. Bertako zelaia gurutzatuko dugu eta nekazarien aldairetik segituko dugu hezi batekin elkartu arte (3:50). Ondoren, hezia gurutzatuta eskuinetara hartu Pipaon herria gure aurrean ikusten dugula.

Lau orduko bidea egin eta gero Pipaonera iritsiko gara. Bertan Gasteiza ekarriko gaituen busa hartuko dugu, denok itxaropentsu hurrengoa noiz ote den galdezka...

**Egun polita pasako dugulakoan,
etor zaitez**

**GEUREKIN MENDIRA
GAZTE TALDEAREKIN!!!**



Errioxa arabarrak jai zoriontsuak opa dizkizue



Eskuernaga - Villabuena (ARABA)

Fiesta por el euskera de
la cuadrilla de Añana

Añanako Eskualdeko
euskararen aldeko

IX Jaia BERANTURI



Irailaren 19^{an}
Septiembre
2004

Euskara
Añanan
Mingainean

Artisan Azoka • Pailazoak • Dantzak
Bertso saioa • Herri bazkaria • Arraunlariak
Kontzertuak • Trikitixa • Txalaparta
Erraldoiak • Buruhandiak • eta abar...

Andre Maria Zuriaren ohorezko jaiak

2004

Abuztuak 4

18:00 Andre Maria Zuriaren plazan

2004ko jaietako hasiera emango dien SUZIRIaren jaurtiketa eta ZELEDONEN JAITSIERA.

19:15 Udaletxea, Agirre Lehendakariaren kalea, Posta kalea eta Andre Maria Zuriaren plaza

UDAL SEGIZIOA BEZPERETARA JOATEA, honako hauek lagunduta: UDAL MUSIKA BANDA, UDAL TXISTULARI BANDA, ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN KONPARTSA eta gaita-jotzaile banda hauek: UDAL FOLKLORE AKADEMIAKOA, INDARRA, ELTZIEGO, EZBERDINAK, ERLETXO, GUARDIA ETA GASTEIZKO GAITEROAK.

San Migel elizan

BEZPERAK, LORE ESKAINTZA eta HERRI-SALBEA, Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean. Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsaren dantzaldia.

19:00 - 22:00 Florida parkean

Dantzaldia: BANDOLA orkestra.

20:30

Aihotz plazan

DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udall Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

22:00 Erdialdeko kaleetan

FAROLEN PROZESIOA: Andre Maria Zuriaren plaza, Prado

kalea, Becerro de Bengoa kalea, San Antonio kalea, Florida kalea, Ramon Ortiz de Zarate kalea, Foru kalea, Alaba Jeneralaren kalea, Becerro de Bengoa kalea, Prado kalea eta Andre Maria Zuriaren plaza.

22:45 Ogeta pilotalekuan

ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).

23:00 Principal antzokian

"El otro lado de la cama". David Serranoren komedia

23:00 - 03:00 Erdialdean eta Alde Zaharrean

Musika kalean: EZBERDINAK, KIRRINKA, INDARRA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

23:30 Olagibel kalean

ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa: EZBERDINAK, KIRRINKA, INDARRA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

24:00 Foru plazan

Kontzertua: QUECO.

Arka plazan

Gau-jaiak: CALLE MAYOR orkestra.

Aihotz plazan

Kontzertua: SKALARIAK.

Unibertsitateen esparruan

Kontzertua: THE BON SCOTT BAND (Bartzelona).

00:30 Plaza Berrian

NUEVA ALASKA orkestra.

02:00 Txosnetan

Kontzertua: ERASO.

Abuztuak 5

7:00 Erdi Aroko hirigunean eta Andre Maria

Zuriaren plazan

EGUNSENTIKO PROZESIOA eta ARROSARIOA.

9:00 Plaza Berrian

BANDA ETA TXARANGEN DEIA.

10:00 Foru plazan

Boloak, Andre Maria Zuriaren erakustaldia.

10:30 San Migel elizan

GOTZAIN-MEZA. Bertan izango da Gasteizko udalbatza. Manuel Iradier Abesbatzak kantatuko du.

11:00 Ogeta pilotalekuan

ESKU PILOTA, BINAK.

Zezen-plazan

Bigantxak.

11:30 - 15:00 Florida parkean

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

12:00 Plaza Berritik abiatuta

Kalejira: Arabako Trikitixa Elkarteak. ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN.

Peñafloridako Kondearen plaza

Haurrentzako dosteta: EN LA LONA taldea.

"Circonírico", (gaztelaniaz)

Gargantua.

12:00 - 13:00 San Kristobal eta Adurtza

auzoetan

Musika-giroa.

Santa Luzia eta Judimendi auzoetan

Musika-giroa.

12:00 - 14:00 Erdialdean eta Alde Zaharrean

Musika-giroa.

Aihotz plazan

Trikitixa.

Prado parkean

Jende ororentzako ABENTURA LEKUA.

12:15 Plaza Berrian

GASTEIZKO DANTZARIAK.

12:30 Arka plazan

Ertzaintzaren Musika banda.

Luis Aranburu Udall Musika Eskolako auditorioan (Hedegile kalea, 108).

Musika klasikoa. OCA

13:00 Foru plazan

HERRI KIROLAK.

Florida parkean

Gasteizko udall musika banda

13:30 Arka plazan

Omenaldia ikurrinari.

Aihotz plazan

Bertsolariak.

Peñafloridako Kondearen plaza

Txotxongiloak "Beldurraren apoia" (euskaraz).

Erdialdean

Musika emanaldia.

17:00 Zezenetara joatea.

Plaza Berritik zezen-plazara.

17:00 - 20:30

Prado parkean

ABENTURA LEKUA.

18:00 Zezen-plazan

LEHEN ZEZENKETA.

Prado parkean

Haurrentzako antzerkia.
Probintzia plazan
 Jotak: VOCES NAVARRAS.
18:00 - 20:00
Peñafloridako Kondearen plaza
 Gargantua.
18:30
Erdialdean eta Alde Zaharrean
 Musika-giroa
19:00 Senda ibilbidean
 Musika-giroa
19:00 - 20:00 Erdialdean
 Musika emanaldia.
19:00 - 22:00 Floridan
 Dantzaldia: METEORO orkestra.
19:30 Aihotz plazan
 TXISTULARIEN kontzertua.
20:00 eta 23:00 Principal antzokian
 "El otro lado de la cama". David Serranoren komedia.
20:00 Jardín de Falerina-n
 IGLAREN TRIKIMAILUA (Folka)
Amarika plazan
 Musika emanaldia.
20:30 Zezenetatik itzultzea.
Aihotz plazan
 DANTZA PLAZAN.
20:30 - 21:30 Erdialdean
 MARIACHI LOS REYESen desfilea.
22:45 Ogeta pilotalekuan
 ESKU PILOTA (profesionalak).
23:00 Mendizabala

Abuztuak 6

GOIZEAN

10:00 Foru plazan
 Boloak, Andre Maria Zuriaren erakustaldia.
11:00 Ogeta pilotalekuan
 ESKU PILOTA, BINAKA. (zaletuak).
Zezen-plazan
 Bigantxak.
11:30 - 15:00 Florida parkean
 Gastronomia eta herri artisautza azoka.
12:00 Plaza Berrian
 BANDA ETA TXARANGEN DEIA.
Peñafloridako Kondearen plaza
 Haurrentzako dosteta: TUTIK ERE CLOWNS. "Non dago trukoa?" (euskaraz).
 Gargantua.
12:00 - 13:00 Abetxukon
 Musika-giroa San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandarekin (Italia).

IKUSKIZUN PIROMUSIKALA, PIROFANTASIA Y MULTIMEDIA enpresaren (Valentzia) eskutik.
Principal antzokian
 "El otro lado de la cama". David Serranoren komedia.
Probintzia plazan
 MARIACHI LOS REYES.
23:00 - 03:00 Erdialdean eta Alde Zaharrean
 Musika kalean: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
23:30 Olagibel kalean
 ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa.
24:00 Foru plazan
 Kontzertua: DAVID CIVERA.
Arka plazan
 Gau-jaia: CAIMAN SHOW orkestra.
Aihotz plazan
 URKOren errezitaldia.
 Unibertsitateen esparruan
 Kontzertua: THE MEAS.
01:00 Plaza Berrian
 THE BEATLES ikuskizuna (Get Back Revival Show).
02:00 Txosnetan
 Kontzertua: OBLIGACIONES.

Lakuan eta Sansomendin
 Musika-giroa.
12:00 - 14:00 Prado parkean
 ABENTURA LEKUA.
12:30 Arka plazan
 ERTZAINTZAREN MUSIKA BANDA.
 Luis Aranburu Udal Musika Eskolako auditorioan.
 Musika klasikoa. CONVOX.
Aihotz plazan
 Trikitixa
13:00 Foru plazan
 HERRI KIROLAK.
Florida parkean
 Gasteizko Udal Musika Banda.
13:30 Probintzia plazan
 Galiziaren eguna.
 ADAIL taldearen emanaldia (Coruñaako Sociedad Recreativa de San Xoán de Calo-Teo Elkartekoa).
Aihotz plazan
 Bertsolariak: Jon Maia, Sustrai Colina, Joxe Agirre eta Ruben Sánchez.

Aurkezlea: Lierni Altuna.
Peñafloridako Kondearen plaza
 Txotxongiloak: ARTE FUSION TITERES, "Cuentos sonantes y títeres" (gaztelaniaz).
13:30 - 14:30 Erdialdean
 San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandaren (Italia) eta Martinikako PLASTIC SYSTEM banda emanaldia.
14:00 Erdialdean
 Kalejira gaita-jotzaile banda hauekin: UDAL FOLKLORE AKADEMIAKOA, INDARRA, ELTZIEGO, EZBERDINAK, ERLETXO, GUARDIA eta GASTEIZKO GAITEROAK, ARRASATE, ELGOIBAR, IRUÑA, BILBO ETA TUTERA.
17:00 Zezenetara joatea.
 Plaza Berritik.
17:00 - 20:30 Prado parkean
 ABENTURA LEKUA, jende ororentzat.
 Eskalalekuak, zubi tibetarra, goming, zezen mekanikoa, aire-bira, puzgarriak, tren, piloten etxea etab.
18:00 Zezen-plazan
 ABONUKO BIGARREN ZEZENKETA.
Prado parkean
 Haurrentzako antzerkia: ZIRKO TTIPIA taldea, "Txalozirkus" (euskaraz).
Probintzia plazan
 Jotak: GRUPO FOLKLORICO ESTAMPA.
18:00 - 20:00
Peñafloridako Kondearen plaza
 Gargantua.
Oinezkoen alderdian
 Kalejira gaita-jotzaile banda hauekin: UDAL FOLKLORE AKADEMIAKOA, INDARRA, ELTZIEGO, EZBERDINAK, ERLETXO, GUARDIA eta GASTEIZKO GAITEROAK, ARRASATE, ELGOIBAR, IRUÑA, BILBO ETA TUTERA.
18:30 Erdialdean eta Alde Zaharrean
 Musika-giroa: GESALTZA fanfarrea.
19:00 Senda ibilbidean
 Musika-giroa: GUARDIAKO txaranga.
Erdialdean
 San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandaren (Italia) eta Martinikako PLASTIC SYSTEM

BAND bandaren (Frantziar Antillak) musika emanaldia.
19:00 - 22:00 Florida parkean
 Dantzaldia: KRESALA orkestra.
19:30 Aihotz plazan
 ESBART SAN MARTÍ. Ballet Folklòric dels Països Catalans.
20:00 eta 23:00 Principal antzokian
 "Excusas".
20:00 Jardín de Falerina-n
 KIKE GUZMAN JAZZ QUARTER
Amarika plazan
 Musika emanaldia.
20:30 Zezenetatik itzultzea.
Aihotz plazan
 DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin eta sardana Esbart San Martí-rekin.
22:45 Ogeta pilotalekuan
 ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).
23:00 Mendizabalean (ferialekuaren ondoan)
 GASTEIZKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO II. ERAKUSTALDIA
 Pirotecnia CABALLERren eskutik.
Principal antzokian
 "Excusas".
Probintzia plazan
 Umore eta fantasia gaua: MARIANICO EL CORTO Y CIA.
 "Que la risa no pare, no pare, no".
23:00 - 3:00
Erdialdean eta Alde Zaharrean
 Musika kalean: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
23:30 Olagibel kalean
 ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
24:00 Foru plazan
 Kontzertua: ORISHAS.
Aihotz plazan
 Kontzertua: SAGARROI.
 Unibertsitateen esparruan
 LA GRAN ORQUESTA REPUBLICANA.
00:30 Plaza Berrian
 VOLCAN orkestra.
Arka plazan
 Gau-jaia: JOSELU ANAIK.
02:00 Txosnetan
 Kontzertua: FLITTER.



Abuztuak 7

10:00 Foru plazan

Boloak

10:30 Andre Maria Zuriaren plazan

"Zure X. argazkia, Bereziak"

11:00 Ogeta pilotalekuan

ESKU PILOTA, BINAKA.

Zezen-plazan

Bigantxak.

San Migel elizan

Blusa txikien ospakizuna, Zeledon Txiki eta Neska Txikirekin, eta LORE-ESKAITZA, Andre Maria Zuriaren aldrearen.

11:30 Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean

OHOREZKO AURRESKUA, Zeledon Txiki eta Neska Txiki eskainia.

11:30 - 15:00 Florida parkean

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

12:00 Plaza Berrian

ZELEDON TXIKIREN JAITSIERA. ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN Konpartsa
Plaza Berrian eta San Antonio, Florida, Foru eta Posta kaleetan barrena ibiliko da.

12:00 - 13:00

Gasteiz hiribidean eta Ariznabarran Musika-giroa San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandarekin (Italia).

Aranan eta Aranbizkarrean Musika-giroa Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandarekin (Frantziar Antillak).

12:00 - 14:00 Prado parkean ABENTURA LEKUA.

12:30

Peñafloridako Kondearen plaza Haurrentzako dosteta: PLIS PLAS taldea, animazio musikala parte hartzea sustatzen duten jolasekin (gaztelaniaz).

Gargantua.

Luis Aranburu Udal Musika

Eskolako auditorioan.

Musika klasikoa: Plano kontzertua.

HUMBERTO QUAGLIA.

Arka plazan

Kontzertua: LAUDIOKO SANTA

LUZIA Musika Banda.

Bastiturri kalean

XIV. GANBA JANA: "Gasteiztarrek".

Aihotz plazan

Trikitixa: ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA.

13:00 Foru plazan

HERRI KIROLAK, Andre Maria Zuriaren erakustaldia.

Florida parkean

GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDAREN emanaldia. Blusa eta Neska txikientzako errepertorioa.

13:30 Aihotz plazan

Bertsolariak: Xabier Silveira, Manex Agirre, Estitxu Arozena eta Iñaki Viñaspre.

Aurkezlea: Irati Lotina.

Peñafloridako Kondearen plaza

Txotxongiloak: BIHAR taldea, "Adarbakar urdina" (euskaraz).

13:30 - 14:30 Erdialdean

San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandaren (Italia) eta Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandaren (Frantziar Antillak) musika emanaldia.

ARRATSALDEAN

17:00 Zezenetara joatea.

Plaza Berritik.

17:00 - 20:30 Prado parkean

ABENTURA LEKUA.

17:30 Plaza Berritik Prado

parkera.

Blusa txikiak jaira joatea, Blusa eta Nesken Batzordeak lagunduta.

18:00 Prado parkean

TXIKIENTZAKO FESTA HANDIA. Haurrentzako antzerkia: GOLOKA taldea, "Sola y sin cola en la gasolinera" eta Gargantua

Zezen-plazan

HIRUGARREN ZEZENKETA.

Probintzia plazan

Jotak: ALMA NAVARRA.

18:30 Erdialdean

Tarbeseko "LOUS BERRETES" fanfarrea.

19:00 - 20:00 Erdialdean

San Remoko CANTA CIUCCIA umore-bandaren (Italia) eta Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandaren (Frantziar Antillak) musika emanaldia.

19:00 - 22:00 Florida parkean

Dantzaldia: BUMERAN orkestra.

19:30 Aihotz plazan

ORTZADAR. Euskal Folklore Taldea.

20:00 eta 23:00 Principal

antzokian

"Excusas".

20:00 Jardín de Falerina-n VIENTOS DE LOCO (Pop-rocka)

Erdialdean

Musika emanaldia.

Prado parketik Plaza Berrira

Blusa txikien itzulera.

20:30 Zezenetatik itzultzea.

Aihotz plazan

DANTZA PLAZAN.

22:45 Ogeta pilotalekuan

ESKU PILOTA, (profesionalak).

23:00 Mendizabalean

GASTEIZKO NAZIOARTEKO II. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA, Portugaleko MINHOTA piroteknia.

Principal antzokian

"Excusas".

Probintzia plazan

BIELORRUSIAKO BELLY ROSI

BALET NAZIONALA

23:00 - 03:00

Abuztuak 8

09:00 San Migel elizan

Blusa beteranoak: meza, Andre Maria Zuriari loreak eskaintzea eta ohorezko aurrekua.

10:00 Plaza Berrian

BANDA ETA TXARANGEN DEIA blusa beteranoekin.

Foru plazan

Boloak, Andre Maria Zuriaren erakustaldia

10:30 Plaza Berrian

LEHIAKETA GASTRONOMIKOA.

11:00 Ogeta pilotalekuan

ESKU PILOTA, BINAKA.

Zezen-plazan

Bigantxak.

11:30 - 15:00 Florida parkean

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

12:00 Erdialdean

ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN Konpartsa

Peñafloridako Kondearen plaza

Haurrentzako dosteta: POTXIN ETA PATXIN taldea, "Mendiari so" (euskaraz) eta Gargantua.

12:00 - 13:00 Koroatzea

Musika-giroa Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandarekin.

12:00 - 14:00 San Martin-en

Musika-giroa: GESALTA fanfarrea.

Prado parkean

ABENTURA LEKUA.

Erdialdean eta Alde Zaharrean Musika kalean: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

23:30

Olagibel kalean

ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

24:00 Foru plazan

Kontzertua: DOVER.

Arka plazan

Gau-jaia: EMBRUJADA orkestra.

Aihotz plazan

Kontzertua: MAL DE OJO.

Unibertsitateen esparruan

Kontzertua: FJORD.

00:30 Plaza Berrian

ORQUESTA 10.

02:00 Txosnetan

Kontzertua: DESECHOS (Madril).

12:30

Luis Aranburu Udal Musika Eskolako auditorioan.

Gitarra eta biolina. Javier Antofiana eta Nikoloz Bitchiashvili.

Aihotz plazan

Trikitixa.

Arka plazan

AGURANGO MUSIKA BANDA.

Probintzia plazan

Beteranoentzako IX. Dantza Lehiaketa. "El meneito veterano".

12:30 - 14:30 Posta plazan

"Piztiak" eskalakekua

13:00

Foru plazan

HERRI KIROLAK.

Florida parkean

Gasteizko Udal Musika Banda.

13:30 Aihotz plazan

Bertsolariak: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Oihane Perea eta Asier Otamendi.

Aurkezlea: Irati Anda.

Peñafloridako Kondearen plaza

Txotxongiloak: TEATRO ARBOLE taldea, "El Caballero negro".

17:00 Zezenetara joatea.

Plaza Berritik

17:00 - 20:30 Prado parkean

ABENTURA LEKUA.

18:00 Prado parkean

Haurrentzako antzerkia: GORRINGO taldea, "Munduko arraultzik haundiena" (euskaraz).

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAOKAK ETA MERIENDAK

Probintzia plazan
Jotak: "LA RIBERA CANTA".
Zezen-plazan
LAUGARREN ZEZENKETA.
18:00 - 20:00
Peñafloridako Kondearen plaza
Gargantua.
18:30 - 20:30 Posta plazan
"Piztiak" eskalakekua
19:00 - 20:00 Erdialdean
Musika-giroa Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandarekin (Frantziar Antillak).
19:00 - 22:00 Florida parkean
Dantzaldia: JALISCO BAND orkestra.
19:30 Aihotz plazan
TRIKITIXA KONTZERTUA.
20:00 eta 23:00 Principal antzokian
"Nadie es Perfecto".
20:00 Jardín de Falerina-n
JOXAN GOIKOETXEA TRIO (Jazz Musette).
Amarika plazan
Musika-giroa Martinikako PLASTIC SYSTEM BAND bandarekin (Frantziar Antillak).
20:30 Zezenetatik itzultzea.
Zezen-plazatik Plaza Berrira
Aihotz plazan
DANTZA PLAZAN.

22:45 Ogeta pilotalekuan
ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).
23:00 Mendizabalean
GASTEIZKO NAZIOARTEKO II. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA, VALECEA-PIR piroteknia (Araba).
Principal antzokian
"Nadie es Perfecto"
Probintzia plazan
Umorea FRANCAL Y CIA-rekin: "Este Show es la monda".
23:00 - 03:00
Erdialdean eta Alde Zaharrean
Musika kalean: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
23:30 Olagibel kalean
ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
24:00 Foru plazan
Kontzertua: LOS PECOS.
Arka plazan
Gau-jaia: POKER orkestra.
Aihotz plazan
Kontzertua: KARIDADEKO BENTA.
Unibertsitateen esparruan
Kontzertua: REINCIDENTES.
00:30 Plaza Berrian
BELISSIMA orkestra.
02:00 Txosnetan
Kontzertua: TXAPELPUNK.

colores" (gaztelaniaz).
Zezen-plazan
BOSGARREN ZEZENKETA.
Probintzia plazan
Jotak: VOCES DEL EBRO.
18:00 - 20:00
Peñafloridako Kondearen plaza
Gargantua.
19:00 Foru plazan
ANDRE MARIA ZURIAREN KOROATZEAREN 50.
URTEURRENA dela eta Arabako Gozogileen Elkartek egindako PASTEL ERRALDOIAren herri dastaketa.
Posta plazan
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
19:00 - 22:00 Florida parkean
Dantzaldia: CABARET orkestra.
19:30 Aihotz plazan
DANTZA PLAZAN.
20:00 Principal antzokian
"Nadie es Perfecto".
Jardín de Falerina-n
SOKAIRE (Folka).
20:30 Zezenetatik itzultzea.

Aihotz plazan
DANTZA PLAZAN.
22:45 Ogeta pilotalekuan
ESKU PILOTA (profesionalak).
23:00 Mendizabalean
GASTEIZKO NAZIOARTEKO II. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA, Italiako ORZELLA piroteknia.
Probintzia plazan
MILENIUM bariedade-errebista.
23:00 - 03:00 Plaza Berrian
LA RED orkestra.
23:30 Olagibel kalean
ZORTZI ZESENSUZKO eta musika-giroa: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
24:00 Txosnetan
Kontzertua: BERRI TXARRAK.
01:00 Andre Maria Zuriaren plazan
JAI BUKAERA: ZELEDON AGURTU ETA IGOTZEA. AZKEN TRAKA, VALECEA piroteknien eskutik.
02:00 Txosnetan
Kontzertua: D'JANGO FM (Madril).

Abuztuak 9

10:00 Foru plazan
Boloak
11:00 Ogeta pilotalekuan
ESKU PILOTA, BINAKA(zaletuak).
Zezen-plazan
Bigantxak.
12:00 Plaza Berrian
BANDA ETA TXARANGEN DEIA.
Plaza Berrian eta inguruan.
ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN Konpartsa
Peñafloridako Kondearen plaza
Haurrentzako dosteta: XABI LARREA, "Mr. Frac" eta Gargantua.
12:00 - 14:00 Txagorritxun
Musika-giroa: GESALIZA fanfarrea.
Zaramaga eta Pilar auzoetan
ARABAR ERRIOXAKO txaranga.
Prado parkean
ABENTURA LEKUA.
12:30 Luis Aranburu Udal
Musika Eskolako auditorioan.

Musika klasikoa.
Aihotz plazan
ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA
Arka plazan
ARAIKO MUSIKA BANDA.
13:00 Foru plazan
HERRI KIROLAK.
Florida parkean
Gasteizko Udal Musika Banda.
13:30 Aihotz plazan
Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jesus Mari Irazu eta Juan Mari Juaristi. Aurkezlea: Irati Mendiguren.
Peñafloridako Kondearen plaza
Txotxongiloak: TELESKOPIO antzerki taldea, "Non dabil haizea?" (euskaraz).
17:00 Zezenetara joatea.
Plaza Berritik.
17:00 - 20:30 Prado parkean
ABENTURA LEKUA
18:00 Prado parkean
Haurrentzako antzerkia:
BAMBALUA taldea, "Un mundo de

txosnak 2004

kontzertuak
gauetz 12.00etan eta 02.00 etan

Abuztuak 4:
Bon Scot Band
Eraso

Abuztuak 5:
The Meas
Obligaciones

Abuztuak 6:
Gran Orquesta Republicana
Flitter

Abuztuak 7:
Fjord
Desechos (ex-Hechos contra el decoro)

Abuztuak 8:
Reincidentes
Txapelpunk

Abuztuak 9:
Berri Txarrak
D'Jango FM

beste ekitaldiak

Abuztuak 5
Flamenkoa.
Once Varas taldea
Antzerkia.
Pikor eta Zanguango taldea: "Al fondo a la derecha"
Bertso
Desafioa (neskak): Bizkaia&Araba
Bideo proiektzioak (Pantaila erraldoian)



Abuztuak 8
Perkusioa. TERANGA
Bideo proiektzioak (Pantaila erraldoian)

Abuztuak 9
Txalaparta, Malabareak eta Su-ikuskizuna.
Antzerkia. Trapu Zaharra taldea: "El pisito"
Bideo proiektzioak (Pantaila erraldoian)

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



San Prantzisko Xabierkoaren Kantaria, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33